



Iturria: *Piarres Larzabalen idazlanak (III eta IV)*, Piarres Larzabal  
(Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1992

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LarzabalPastoralAntzekoak.htm>

## PASTORALA ANTZEKO ANTZERKIAK

Piarres Larzabal

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ORREAGA

*(Pastorala gisarako ikusgarria-1964)*

### **Joka-lekua:**

Taula gain zabal bat... Giblean dauka mendi pintura bat, bi sartze-ko atekin... Sahetsean, musikarieren lekua berex eta alturan.

### **Jokalariak:**

**GURI:** Otsoaren alaba.

**OTSOA:** Euskaldunen erregea.

**GANELON:** Charlemagne-en aintzindaria.

**AINGERU:** Aingeru bat.

**AZTIA:** Azti bat, makil mako handi batekin.

**ZINGIL:** Debru luze mehe bat.

**TRIPERO:** Debru lodi tipi bat.

**MEZULARI:** Mezulari bat, euskalduna.

**BURREGO:** Burrego bat.

**ROLAND:** Adarmotzen aintzindaria.

**OTON:** Adarmotzen mezularia.

**GOTOR:** Euskaldun soldado bat.

**EUSKALDUN GUDARIAK:** Sei edo zortzi.

**ADARMOTZ GUDARIAK:** Sei edo zortzi.

**KANTARIAK**

**DANTZARIAK**

**MUSIKARIAK**

**NESKATX ZERBITZARIAK**

Beste edozoin batzu



## Ikusgarria eman aintzin

*Egin bedi oborezki, jaun buruzagien (deputatu, auzapez, erreter eta beste) sarrena.*

*Jaun boriek sartuko dira, ikurrina eta dantzarien ondotik... Jendea xutituko da. Kantariek emanen dute «Agur jaunak». Ikurrina ezarriko da zintzilik bage baten gainean, denen aintzinean.*

### I

*Jendea berriaz jarri ordu, taula gainean agertzen dira euskaldun gudariak, aingerua buru... Gudarien moldean airoski kurriruz, kantatzen dute: «Eusko, euskotarrak gera», etab... Musikak laguntzen ditu... Lerro batean emaiten dira... Jendea agurtzen dute. Aingeruak kantatzen du, bere ikurrin tipi xuria eskuan, pastoraletako prologaren airea baliatuz.*

**AINGERU**

Hemen zaizten jenderi, emazte ala gizon  
Jainkoak guziera, dautzuela arratsalde on.  
Ni naiz aingerua, huna ene armada  
Gizon hauk dira Euskaldunak, soldado onak bixtan da.

**OTSOA**

Hemen giren lekua, deitzen da Orreaga  
Gure lurra da eta, gaiten hunentzat guduka.

**AINGERU**

Mintzatu gizonak, izena du Otsoa  
Euskaldun errege da, ta azkar du besoa.

*(Oro jaltzen dira, airoski kantatuz eta musikarekin, etorri bezala... Hauk jali ordu, sartzen dira Adarmotzak... Satan dute buru, bere eskuetan duela ikurrin tipi bat gorria... Kantatuz eta musikarekin, kurriruz dute aleman soldadoen moldean, emeki eta pisuki... Hauk ere, jendea agurtzen dute)*

**ADARMOTZAK**

*(Kantuz)*

Adar motz-motzak  
Adar adar motz-motzak

Nausi gira orotan  
Orotan tan tan.

**SATAN**

Aingeru tzar ustela, ez duka aski zerua  
Jakin zak toki huntan, nausi dela debrua.

**ROLAND**

Ni deitzen naiz Roland, Charlemagne-en gizona  
Harek balio baititu, Otsoa bezalako dotzena.  
Aurrerat Adarmotzak, altxa zuen ezpata  
Sumetitzen ez dena, urrikaltzeko baita.

**SATAN**

Arratsalde on jendeak, balia biziaz  
Ez izan axolarik, apez ta fediaz.

*(Irri tzar bat botatzen du eta, sartu bezala, Adarmotzak ateratzen dira)*

### II

*(Neskatzek, onbor gisako jar-alki bat ekartzen dute... Guri, haren gainean jartzen da, ilun eta gogoetatua... Aztia hurbiltzen zaio. Kantatzen dute pastoraletako bertseten airean)*

**AZTIA**

Oi zu, Otsoaren alaba, zer ote da zure pena?  
Zertako bada nauzu, ekarrazi ni hunan?

**GURI**

Jaun azti nausia, nauzu lagundu beti  
Ene bihotzeko pena, otoi zazu ezti.

**AZTIA**

Erregeren alaba, beraz ez zira lorios  
Erradazu otoi ba, zertako ziren maluros.

**GURI**

Jaun azti nausia, ez dakit zer bilaka  
Printze arrotz batek, bereturik nauka.  
Charlemagne-enganik, hunara etorria.  
Haren izena da, Ganelon printzia.

**AZTIA**

Ikusi dut Ganelon, da gizon ederra  
Eder kanpoz daiteke, ta barnez makurra.

**GURI**

Printze horren urratsak, zaizkit maltsoak  
Bainan besterik dio, ene aita Otsoak.



**AZTIA**  
Aitak du beldurra, ez ote den Ganelon  
Zer ikus hunat jina, salatari gizon.

**AZTIA**  
Charlemagne-ek igorria, Ganelon printzia  
Nekez daitekezu, gure adiskidia.  
Charlemagne-en xedea, duzu aspaldian  
Gure lurren biltzea, bere zangopian.

**GURI**  
Azti jauna zoazi, zure otoizteirat  
Zer egin behar dudan, kontsulta eiterat.  
Ez naiteke ni hola, nihundikan bizi  
Aita maite dut eta, Ganelon ezin utzi.

**AZTIA**  
Banoa otoitzerat, zuk erran bezala  
Gain hartan den harek, bai argi zaitzala.  
Izpiritu gordeak, zer baitu salaturen  
Agian gero duzu, ongi onarturen.  
*(Ganelon heldu da... Musika...)*

### III

**GURI**  
Horra heldu Ganelon, bihotza dut pilpil  
Beldur naiz tanpez hemen, erori eta hil.

**GANELON**  
Izarra zerbait bada, bai ta iduzkia  
Zure itzala ez dira, ez bat eta ez bestia.

**GURI**  
O Ganelon printzia, ez dakit nola erran  
Gure amodioa, da arras lanjeran.

**GANELON**  
Zer derasazu orai, ala nuzu ukatzen  
Mintza zaitte otoi, zer da gertatzen?

**GURI**  
Etorria urrundik, hemen zaude gurekin  
Xede onez zabiltzan, nahi nuke jakin.

**GANELON**  
Hauxe da galdea, ontsa badakizu  
Ene xede bakarra, maitea, zirela zu.

**GURI**  
Aita ez da fido, hau eta hura dio  
Zure urratsetan, badela zerbait mixterio.

**GANELON**  
Ene urratsak izan dira, argi eta garbi  
Zure amodio bakarrak, nabil hemen gaindi.

**GURI**  
Aitak dio berriz, Charlemagne duzula nausia  
Eta harek zaituela zu, hunarat igorria.

**GANELON**  
Zin dautzut egiten, ez dela holakorik  
Eta erre nadiela, erraiten badut gezurrik.

**GURI**  
Heldu bada Charlemagne, gure lurren hartzera  
Erradazu garbiki, norekin izanen zira?

**GANELON**  
Onartuko dautazu, nik ez ukatzia  
Ene erresuma ta, Charlemagne nausia.

**GURI**  
Onar-azu zuk ere, nik ez ukatzia  
Ene aita errege, ta ene lur maitia.

**GANELON**  
Ez duzu arrazoinik, hola beldurtzeko  
Ez da gure artean, gerlarik piztuko.

**GURI**  
Hola denaz geroz, dugun ihes egin  
Goazen bizitzerat, urrun elgarrekin.

**GANELON**  
O ene maitia, bihotzez diot «bai»  
Bainan adimenduz, ez naiz hortarat ai.

**GURI**  
Orai dut ikusten, ez nauzula maite  
Zerk zaitu ibilki: Bihotzak ez ote?

**GANELON**  
Nigarra heldu zaut, baitzaitut penatu  
Urruntzen naiz bainan, nai nuke hurbildu.

**GURI**  
O ene maitia, otoi zaude hurbil  
Zurekin nahi baitut, bai bizi ta bai hil.



## KANTARIAK

Huna iduzki xuria  
Lano artetik uria  
Kantuz hasi da neure maitia  
Entzun dut haren irria *(bis)*... eta  
Barna daut egin zauria.

Lurra estali elurrez  
Hozturik nago kaskarez  
Maitiaganik urrun izanez  
Haren galtzeko beldurrez *(bis)*... eta  
Urtzen ari naiz nigarrez.

Gauaz egonik sasian  
Xoria goizik airian  
Penetan dena laster agian  
Goxatuko da bakian *(bis)*... eta  
Sartuko zorionian.

## IV

## OTSOA

Oi ene alaba, berri hits batekin  
Mezulari hau zait, urrundik orai jin.  
Ganelon ez dela, zuregatik etorri  
Bainan xipiun gisa, dutela igorri.

## GURI

Aita eta zu jauna, nik ez dut sinesten

## OTSOA

Oxala o bai oxala, gezurra balitz dena  
«Izena» balitz bakarrik, izan gabe «izana».  
Errazu mezulari, mintza zaite garbiki  
Ikusi nai ez duenari, begiak diotzu ideki.

## MEZULARI

Bai andere printzesa, etsaia atean da  
Bordaletik hunat dator, Charlemagne-en armada.  
Tirahala etorria naiz, gau eta egun zaldiz  
Aski goiz zer heldu den, abisatu nahiz.

## GURI

Oi hau etsidura, sinesteak du lana  
Ez, ez ditake egia, ez da Ganelon xipiuna.

## OTSOA

Aski nigar ta intzirin, oro dira debalde  
Nigarrak ixurtzekotan, ixur gure alde.

## MEZULARI

Etsaia hor heldu da, uholde basa bezala  
Bazter guziak garbitzen, ta suntsitzen dituela

## OTSOA

Ni naiz errege Otsa, zu zira ene odola  
Pentsatzen dut zure izena, ohoratuko duzula.

## MEZULARI

Laster leku hau ere, beteko da nigarrez  
Etsaiak ez du axola, ez emaztez ta ez hurrez.

## OTSOA

Entzun ene alaba, gerlan sartzen gira  
Oraidanik ene peko, gudari bat zira.  
Utz sintsakeriak, susta sentimenak  
Zure beharretan dira, haurrak eta amak.  
Eta zu, mezulari, korda bat lepotik  
Ezar-azu lenbailen, Ganelon zintzilik.  
Ta hi-aita balin banaun, ahantz ez zanala  
Ber denboran Otsa, errege ere dela.

*(Bi gizonak jalitzen dira... Guri bakarrik dago nigarrez... Musika)*

## V

## GURI

Zerua eta lurra, hor zaizte lekuko  
Jasaiten dudana da, izaririk gabeko.  
Bat ezartzen badute, dilindan kordatik  
Bigarren bat ere laster, dukete beretik.  
Bainan zer, zu hemen. Ai naiza erotzen  
Ganelon Ganelon, nundik zira agertzen.

## GANELON

Norbaitek ixilka, nau abisatu  
Leku hauk behar ditut, lehenbailen hustu.

**GURI**

Ganelon zoazi ihesi, zoazi Ganelon  
Laster urrun zaite, ez zaitela hemen egon.

**GANELON**

Zu mintzatu gabe, ez naiteke urrun  
Izanikan ere, gaua eta ilun.  
Bi zaldi hor dauzkat, bat duzu enea  
Zuretzat prest dago, nahi baduzu bestea.

**GURI**

Ganelon ha Ganelon, ahal balitz ba  
Kasu, zoazi fite, aita hor heldu da.

*(Ganelon tirabala jalitzzen da)*

Aita hor heldu da, burregoarekin  
Hau memento latza, ez dakit zer egin.

## VI

**OTSOA**

Ganelon hemen dela, jendek baitiote  
Alaba zuk zer diozu, laster mintza zaite.

**BURREGO**

Hemen balin bada, korda huni esker  
Zintzurra diot nik, tinkaturen laster.

**GURI**

Eni ez galda deus, dakitana da nik  
Ganelon hemen bada, ez dut nik hobenik.

**OTSOA**

Ohartzen banaiz ni, gezurra diozula  
Korda hori zuretzat, izan dadiela.  
Izanik ere zu, baninduzu salduen  
Ene esku hautaz, zintuzket garbituren

**BURREGO**

Mihia ateraia, tripak iduzkitan  
Ganelon dut emanen, lukainka hagetan.

*(Bi gizonak jalitzzen dira... Guri, erdi flakatua, bakarrik geldituzen da... Musika)*

## VII

*Zingil agertzen da, soka bati tiraka.*

**ZINGIL**

Tripero, Tripero, ene mutila!... Jeiki hadi, zerri handia!... Hau duka  
tenorea!

**TRIPERO**

*(Korda lepotik, agertuz)* Ai, ai, ai... Heldu naiz, Monsieur Zingil, ene  
nausia.

**ZINGIL**

Hator hunarat lanerat... Ifernuko sua hiltzen ari duk... Su horren  
azkartzeko, hator su gaia egiterat.

**TRIPERO**

*(Guri erakutsiz)* Hunako neskatxa hau, nik gogotik garreia nezake  
ifernurat.

**ZINGIL**

Utzak urtxo hori ene gain... Perdira bat jadanik badik hegalean...  
Haugi hunarat... Hemen badiagu sekulako xantiera.

**TRIPERO**

Ni gose nago, Monsieur Zingil nausia, eta, ez dezaket lanik egin, ez  
badut tripa betea.

**ZINGIL**

Bakalau buztan bat baduk hor... Aski duk hura jatea, eta haugi hunara-  
rat lanerat... Bestenaz aingeru tzarrak, jende guziak erema-  
nen ditik berekin zerurat.

**TRIPERO**

Bakalau buztana nik ez dut aski lan egiteko... Nik jan behar dut zerri-  
kia eta zahagitik edan nafar arnoa.

**ZINGIL**

Zerrikia utzak biharko. Bihar baita ostiralea... Aker larrua hor duk,  
arnoz betea!

**TRIPERO**

Eni manatzen dauzkidazu beti lanik larrienak... Nik behar ditut ase  
zitziz gormantak eta edariz mozkorrak... Zuk aldiz dituzu  
tentatzen neskatx pollitak. Egin-azu zuk ene lana eta ekazu  
egiteko zurea... Bestenaz greban emaiten dut ene burua.

**ZINGIL**

Tripero basa, petrentzinez betea!... Neskatxen tentatzeko, nun egin  
dituk hik aprendizgoak?

**TRIPERO**

Ofizio hortan ikasia izateko, ez da beharrik pasatu «breveta»... Ofizio hortan arras trebatuak badira hameka, ni baino astoa-goak.

**ZINGIL**

Neskatxen tentatzeko, behar dik araberako gorputza... Ez hi bezala dena zitzi, iduri ote matzota. Bainan ni bezala gerria fin eta bultua leizafin.

**TRIPERO**

Ongi arropatua zirala-ta, ari zira espantuka... Gorputza nolakoa den ageri da biluz-eta... Parioa egiten dautzut... Pasa dezagun hemen berean erreforma... Eta, ikusiko dugu nork, zuk edo nik, izanen dugun gehienik arrakasta.

**ZINGIL**

Topa hire parioa... Neskata hau izan dadiela gure jujea... Ez diat dudarik plazer gehiago izanen duela ikustea ni naizen arkanjelua, ezenetz hi haizen urdea. *(Biluzten basten dira)*

**AINGERU**

*(Agertuz, eskuan zigorrarekin... Kantuz)*

Urrun fite hemendik, debru lotsagabiak  
Zoazte ilunbetarat, han ibil zuen basakeriak.

*(Neskatxari mintzo)*

Zato haur penatua, ba zato enekin  
Ez da zorionik, debru tzar hoiekin.  
Itsusi edo pollit, urde edo arkanjelu  
Satan mila gisaz, da engana-mundu.  
Urtzoa zirare, lanjeretan jarri  
Eztitzerat zaite, enekin etorri.

*(Jalitzen dira... Musika eta zabalgi dantza)*

**VIII**

*(Guri agertzen da bizpahiru haur eta emazte lagunekin... Gero agertzen da Azitia... Begia urrunean galdua, subarki du kantatzen)*

**AZTIA**

Ibañetako lepoa, elur xuriz beztitua  
Zertako ikusten haut, odolez gorritua.  
Napar zabaleko, lur zelai ederra  
Ikusten dut dena, su eta keldarra.

**GURI**

Azti jauna otoi, ikusten duzia  
Nun ote dabilan, Ganelon printzia.

**AZTIA**

Bai ikusten ditut, han urrun bi zaldi  
Nehork engoitikan, ez detzake geldi.

**GURI**

Milesker Jaun gainekoa, o ene zoriona  
Ganelon salbu dela, badut segurtamena.

**AZTIA**

Ganelon salbaturik, ez jar plazerretan  
Bazter guziak ditut, ikusten dolutan.

**GURI**

Zer ote da gertatzen, mintza azti jauna  
Ganelonek ez al du, horien hobena.

**AZTIA**

Etsaiak heldu dira, multzo ta multzoka  
Hetarik batek Ganelon, aintzindari dauka.

**GURI**

Ez, ez zaitut sinesten, ez da holakorik  
Ganelonek ez dauka, saldukeriarik.

**AZTIA**

Oro dira odol, odol su ta nigar  
Etsaia milaka da, ez gaitezke oldar.

**GURI**

Oi biziaren latza, oi etsimendua  
Zertako sortu ninduzun, o Jauna goikua.

**IX****OTSOA**

Xutik haur t'emazte, gerla dugu gerla  
Ahal duen lekora, bakotxa doala.  
Gizonak zaindu armaz, haur ta emaztia  
Emaztiak lagun gerlan, senar ta semia.  
Ta zuri azti jauna, galdatzen dautzugu  
Herriaren alde, jauna otoitz zazu.

**AZTIA**

Zuek aintzina zainduz, guk aldiz gibela  
Gainekoak lagunduz, gure dugu gerla.



## OTSOA

Esperantza hoi dugu, Jaunak zaitzala entzun  
Orai oro zoazte, gordetzerat urrun.

*(Denak jalitzen dira, salbu Otsoa. Musika)*

## X

*(Mezulari agertzen da)*

## OTSOA

Mezularia hemen, zer duzu berri, zer?  
Jakin nahian nago, mintza zaitte laster.

## MEZULARI

Jaun lendakaria, heldu naiz lasterka  
Etsaiak etsai beltzak, erre du Gernika.

## OTSOA

Gernika, Gernika sutan, o hiri saildua  
Arbasoen Gernika, gure bihotzekua.

## MEZULARI

Hegaztin basak nola, bildots gaixotarat  
Halaber dira jautsi, Gernika gainerat.

## OTSOA

Banuen beldurra, sinesteak lan du  
Sakratu gauzentzat ere, ez dute errespetu.

## MEZULARI

Ez dute pietaterik, nehorretaz ere  
Emazte ta haurrak, milaka hil dire.

## OTSOA

Orai artinokoan, bildotser jazarri da  
Bainan orai izanen du, Otsoarekin partida.  
Gudariak abisa zatzu berehala  
Otsoak hunat segidan, deitzen dituela.

*(Otsoa bakarrik)*

O Gernikako haitza, haitz bihotz gogorra  
Emok bai bihotzari, hik dukan indarra.  
Haitza, zin daiat eiten, fermu eta bipil  
Ez bahaut askatutzen, nadiela hill!

## XI

*Euskaldun gudariak sartzen dira kantuz: «Eusko, Euskotarrak», etab...  
Lerroan emaiten dira, Otsoaren aintzinean.*

## OTSOA

O gudari lagunak, orena da latza  
Bildu zauztet hemen, zinez gaiten mintza.  
Etsaia sartu zauku, indar handiekin  
Galde dautzuet egiten, nola joka heiekin.  
Behar dugun apaldu, eta sumetitu  
Edo ihardoki, ta gerlari lotu.

## GOTOR

Jaun aintzindaria, denen izenean  
Nuzu mintzaturen, segida berean.  
Ez baduzu nahi, hemen galdu bizia  
Ez otoi guri aipa, nehorri sumetitzia.  
Euskaldunak gira, ta gureak gure  
Besten meneko baino, hiltzea zauku hobe.

*(Gudari denek kantatzen dute: «Eta tiro belarri motzari!»)*

## OTSOA

Gudari lagunak, lorietan nago  
Ikusten dut zaitzela, gizon bezenbat soldado.  
Ez uste izan, sumetitzerat nindoala  
Ez da hola ahuldu, Otsoaren odola.  
Aintzin iten badut, segitzea zor duzue  
Gibel iten badut, hiltzea aski nuzue.

## GOTOR

Zutan otso errege, badugu konfientzia  
Prest gira zernahitako, zuri da manatzia.

*(Berriz kantu bera)*

## OTSOA

Etsaiak baitira hainitz, huna nola guduka  
Ukaldi tzarra eman, ta jo laster iheska.  
Hola dugu emeki, Adarmotza higatuko  
Itsurat jarraik eni, ez zaituztet galduko.

*(Kantu bera)*





## XII

### MEZULARI

Otso jaun errege, norbait bada hemen  
Nahi zaitu mintzatu, baitezpada omen.

### OTSOA

Mintza bedi mintza, prest naiz entzuteko  
Den berri kiretsenak, ez nau lotsatuko.

### OTON

Jauna ni naiz hemen, Charlemagne-en gizon  
Ba ahal dakizue, hurbil bera nun dagon.  
Orai artio kontrarioak, ditu errautsi  
Deneri nausi dela, behar duzue onetsi.

### OTSOA

Aski solas berdura, mintza zaite garbiki  
Beraz Charlemagne-ek Otsoa, nai luke aurtiki.

### OTON

Ene nausiak dautzu: Uzten dautzut bizia  
Bainan sumetitzekotz Euskadi guzia.

### OTSOA

Ene partez Charlemagne-i, ein-ozu erreputa  
Badugula oraino haren doia ezpata.

### OTON

«Bat» zaizte ta gu mila, ez ahantz Otsoa  
Ez duzu solasen ahalik, ez izan itsua.

### OTSOA

Charlemagne-i errozu, libro nahi dugula  
Libro nahi duen gizonak, balio tu mila.

### OTON

O zer solas debaldeak, lot beraz gerlari  
Laster da eroriko zure espantu hori.

*(Oton jalitzen da... Gudari euskaldunek kantatzen dute)*

## XIII

*Hastapenean bezala Adarmotzak sartzen dira kantuz... Bi armadak apailatzen dira gerlari.*

### ROLAND

Azken dei bat zueri, Euskaldun xoroak  
Zuen armak aurtik eta altxa besoak.

### OTSOA

Altxa armak lagun, ta zanpa mandilak  
Askatasunaren alde, aurrera mutilak.

*(Guduka egiten da bere gorabeherekin... Aingeru eta Zingilek, beren gisan, parte hartzen dute... Euskaldun bat eta lau Adarmotz erortzen dira... Euskaldunak nausitzerat doatzi...)*

### ROLAND

Adarmotzak etorri, etor laguntzera!  
Etsaia nausi dugu, mugi, xahu gira.

*(Apur baten buruan)*

### OTSOA

Oroit erranaz mutillak, ta geldi guduka  
Barreia gaiten laster, heldu tuk ehunka.

*(Euskaldun gudariak tirabala jalitzen dira)*

### ROLAND

Nun da orai Otsoa, bere espantuekin  
Erbia bezala du, laster ihes egin.  
Gure Charlemagne da, munduko nausia  
Jainkoak dio egin, holako grazia.  
Euskaldun zitalak, baitzaizte oldartu  
Beharko duzue orai, ontsasko pekatu.

*(Jalitzen dira kantuz)*

## XIV

*Neskatzek altxatzen dituzte hilen gorputzak... Aingeruak eremaiten du euskaldun gudaria... Debruek biltzen dituzte besteak... Lan hori eginetz, mintzo dira Zingil eta Tripero.*

### ZINGIL

Haugi lanerat Tripero... Haugi... Badiagu zernahi egiteko...

### TRIPERO

*(Agertuz)* Zer duzu zer, holako presa, Monsieur Zingil nausia!... Ez dira ez hilak espakatuko.

### ZINGIL

Hik miazkik horiek... Nik hauk miatzen ditiat... Badiagu hemen nasaiki ifernuko haragia.

### TRIPERO

Hunako gizon haxe, ha zer gizon pizkorra!... Hunekin eginen dugu ifernuan suko enbor ederra.

*(Aingeruak beretzen du delako «gizon pizkorra»)*

**ZINGIL**

Utzok hori Zurikori... Euskalduna denaz geroz, ez duk hori gure xingarra.

**TRIPERO**

Pena da ez baitugu ifernuan euskaldun gehiago... Hauk dute bestek baino usaina hobego.

**ZINGIL**

Ez nakian, Tripero, hik huela holako usma. Nagok hik nola hilak ezagutzen ditukan usainetik.

**TRIPERO**

Arras errex da, Monsieur Zingil. Nahi baduzu entseiatu, usain egin behar zaiote gibeletik.

**ZINGIL**

Hila hil duk... Nik ez zioteiat senditzen hil usaina baizik.

**TRIPERO**

Ez, Monsieur Zingil... Charlemagne-en soldadoak baitira ipar aldekoak, sendi dute Camembert-aren eta bieraren usaina. Euskaldunek aldiz napar arnoaren eta Aldudeko gasnarena.

**ZINGIL**

Luziferren zilkoa lekuko, ez nakian bazitakela holakorik.

**TRIPERO**

Ba, Monsieur Zingil, eta ere, ifernuko sua da euskaldunekin hobea... Kea izaiten du biziago eta gustua ez hain motela.

**ZINGIL**

Hire falta duk, Tripero, ez bada ifernuan euskaldun gehiago. Aski duk hire tripa zakua pixka bat arintzea eta goizetan, «errebeilak» jotzen duelarik, lanerat pixka bat lastertxago mugitzea.

**TRIPERO**

Monsieur Zingil nausia, ez duzu arrazoinik nitaz arranguratzeko... Ifernuan nik sartzen baitut zuk baino euskaldun gehiago.

**ZINGIL**

Tripero, ez zakela erran gezurrik. Azken hilabeteko kontuak ditiat denak, ene karneteen markaturik.

**TRIPERO**

Monsieur Zingil nausia, nik ere begiratzen ditut ene kontuak... Nik nituen ifernurat sartu bi Oletako guarda, Donibaneko mirikua eta Senpereko Etcheverry.

**ZINGIL**

Ba, bainan horietan ez zuan euskaldunik. Bi guardak zituan kaskoinak, mirikua Charantesa eta Etcheverry-tarrak zoin arrazatik diren, nehork ez zakik.

**TRIPERO**

Bai ta ifernurat nik igorri ditut hemengo deputatu ohi bat, hiru gobernadore, bi fraile eta apezpiku bat ere...

**ZINGIL**

Ba bainan, deputatu ohia zuan euskalduna baino biarnesago. Gobernadoreak zituan bat gallegoa, beste biak andaluztarrak. Bi frailek euskarari tiro emana zioteian, latina ikasiz geroz eta apezpikua zuan mintzairaz mutua... Hobe zitekan hau hemen uztea ahalaz luzenik... Ez baitzuen aise konbertituko euskaldun bihirik.

**TRIPERO**

Banituere ifernuko ateraino eremanak bi Hazpandar tripa handi. Donibaneko mutzurdin saindu bat eta Urruñako mozkor bat.

**ZINGIL**

Nik ez ditiat karneteen horien guzieren izenak.

**TRIPERO**

Bi tripa handiak bildu dauzkitet Hazparneko misionestek; Urruñako mozkorra, Sokorriko amak; mutzurdina aldiz, mixione denboran, fraile bizardun zorritsu batek.

**ZINGIL**

Berriz ere, hi bezalako langile batekin, motel egonen duk ifernuko sua.

**TRIPERO**

Ez da ene falta hoinbeste kaskoin, maketo eta buhame, euskaldunek hazten badituzte beren artean.

**ZINGIL**

Aski diotek usain egitea bizi direlarik eta hil araztea lehenbailehen ifernuko paderako on direnak.

**TRIPERO**

Zu ere, besten manatzeko hobea zira, zuhaur lanari lotzeko baino... Aski duzu, ofizioa ikastea eta nola egin behar dudan eni erakustea.

**ZINGIL**

Errak to, Tripero, zer dituk solas horiek? Ala zer haiz, orai, hire nau-siari oldartzen?

**TRIPERO**

Ba, eta ez bazira kontent ene zerbitzuez, beste nausiak ere badira gero... Banoa Jainkoari ene zerbitzuen eskaintzerat.

**ZINGIL**

Jainkoak zaukak to hire beharra!... Urde alfer zikina hi!... Kenduko daiat nik Jainkoa ganatzeko gutizia! To, karatosa aldi bat!...

**TRIPERO**

*(Orroaka, ibesi doa)* Ai, ai, ai!... Fuera Satan!... Biba Jainkoa!... Biba Zuriko aingerua!

**AINGERUA**

*(Agertuz)* Kanporat hemendik debru nahasiak. *(Jalitzzen dira... Kantuz)*  
Elgarren herra eta suzko jelosia  
Horra nola den jendeak, ifernuko bizia.  
Debruari nai duenak, bere arima saldu  
Horrelako bizia, betikotz bilduren du.  
*(Jalitzzen da. Musika)*

**XV**

*(Azitia agertuz)*

**AZTIA**

Jaun gainekoa, hemen nago bakarrik  
Oihan hunen pean, nigarrez urturik.  
Ez zazula ahantz, euskaldun populua  
Egun hautan baitago gerlaz zauritua.  
Hainitz dira hilak, frango kolpatuak  
Zonbat ere preso, denak lehertuak.  
Oroit zaite Gernikaz, hiri hori da saindu  
Etsaiak beretuz geroz, dago hotz eta mutu.  
Ez duzu nahiko, gure auhen oihuak  
Luzaz mespresa ditzan Adarmotz harruak.

**XVI**

*(Ganelon agertzen da... Aurpegia tapatua)*

**GANELON**

Azti jauna ez izi, Ganelon naiz eta nabil  
Nola ixilka naiteken, maiteari hurbil.

**AZTIA**

Ganelon, entzun nezazu, zoazi laster ihesi  
Gerlan baigira eta, kasu nehork ez ikusi.

**GANELON**

Azti jauna badakit, egun hauk dira ilunak  
Bainan bestela daitezke, haukien biharamunak.

**AZTIA**

Bihotzez maite duzuna, ez pentsa nehola  
Oren latz haukietan, ikusten duzula.

**GANELON**

Zuri galdatzea, ausartzia da ote  
Erranen diozua beti dudala maite?

**AZTIA**

Zerbitzu hoi ez dautzut errefusatuko  
Hitz dautzut dudala zutaz mintzatuko.

**GANELON**

Milesker azti jauna, banoa arindurik  
Jastatu baitut hemen, gerla ta herraz besterik.

**AZTIA**

Urrun zaite laster, hor baitira heldu  
Gerlak jorik dauzkan horrenbeste mundu.

*(Jalitzzen dira)*

**XVII**

*Emeki, taula gainean iragaiten dira lau-bost jende multzo... Multzo bakotxa da, gerlaz hunkitu dohakabe batzuz moldatua: Haur, zabar, kolpatu eta beste... Multzo horiek iragaitean entzuten da kantua. Airea: «Alos torrea bai».*

Etsaia sartu da, gure lurretan  
Etsaia hedatu da zelaietan  
Etsaia nausi errekaldean, mendietan  
Oi Euskal-Herria doluz nigarretan.

**XVIII**

*Azken multzoa da: Ama gazte bat, haur tipi bat seaskan pusatzzen duela... Jartzen da. Kantuz emaiten da: «Haurtxo-haurtxoa».*



«Izu egin lo, aita urrun da  
Euskadiren zerbitzuko  
Zure ondoan ama daukazu  
Ez zaitu inoiz utziko.»

«Haurtxo-haurtxoa, izu egin lo  
Hemen nauzu zu zaintzeko.»

«Izu egin lo, aita preso da  
Zu bihar libro izaiteko.  
Egun batian etorriko da  
Gu biokin egoiteko.»

«Haurtxo...»

«Izu egin lo, ilunagatik  
Zeruan izar bat dago  
Mila ta mila izango dira  
Aita libratu-ta gero.»

«Haurtxo...»

*(Musika)*

## XIX

*(Zingilek Tripero bere aintzinean dakar azote batekin joka)*

**ZINGIL**

Haugi hunat, urde ijito, perreka zikin, alfer ongarrri ustela!

**TRIPERO**

Ai, ai, ai, Monsieur Zingil, barka otoi barka... Mozkorrekin nintzen...

**ZINGIL**

Beste aldian, ene lehen oihuan, zurruta utziko duk gero eta lasterka etorriko haiz, edo gostako zauk!

**TRIPERO**

Ez nintzen alfer egoki, Monsieur Zingil. Lau gizon mozkor arazi ditut eta musean lotarazi. Bat ari zen tanto ebasten, bestea

arneguka, hirugarrena kalapita muntatzen... Sua pitz eta pitz ari nintzen, zuk, zorigaitzez deitu nauzularik.

**ZINGIL**

Entzun zak, Tripero, behar duk beste ofizio bati lotu... Hire mozkor lanak ez dik ifernurat aski jende tiratzen.

**TRIPERO**

Ez da ene falta, ostatus eta kafetan, arno eta edari finen orde, saltzen badute hoinbeste fruitu edari, kafesne, Vichy eta botikakeri... Fu zikin!

**ZINGIL**

Hortakotz, hire nausiek deliberatu diagu behar dukala fraile sartu eta jenderi predikatzen lotu.

**TRIPERO**

Ni fraile!... Nik ez dut fraile sartzeko bokazionerik... Ez naiteke ni bizi zurrutarik gabe.

**ZINGIL**

Ez hau egarriak hilen komentuan... Ez izan hortaz beldur... Badiztek sekulako mahastiak eta izendatuko haute hango xaiero.

**TRIPERO**

Eskualde huntako jendeak nik ezagutzen ditut... Fraileak ez dituzte maite... Ez diote fraile baten predikuari kasurik eginen.

**ZINGIL**

Gaizki mintzo haiz: Saratarrak, Senperetarrak, Azkaindarrak, Donibandarrak, Urruñarrak, Zokotarrak dituk jende fededunak eta maite dituzte sotanak.

**TRIPERO**

Ez, Monsieur Zingil, ez... Saratarrak dira larriak, Senperetarrak bulunbak, Azkaindarrak kixkilak, Donibandarrak jaun nahiak, Ziburutarrak kazkarotak, Urruñarrak tipulak, Zokotarrak ijitoak... Jende horiek guziak, sotanak baino aiseago biltzen ditu arnoak.

**ZINGIL**

Adi-zak, Tripero, hi bezalako gizon bat ez duk nonnahi kausitzen gero. Fraile jauntzi batekin hinteke gizon bat xoragarria eta bezti hezake prediku alkia.

**TRIPERO**

Prediku alkia bezitzea ez da aski... Behar da jakin predikatzen. Nik, predikuan hasi-ta, «beltzak» ditut bakarrik ateratzen.

**ZINGIL**

Predikatzen duk gauzarik errexena. Saindu batentzat hartuko haute erraiten baduk hala ez dena... Jende guzia hire alde izanen



duk predikatzen baduk bekatu handiak direla tipiak eta bekatu tipiak direla handiak.

**TRIPERO**

Nik ez dut ikasi katiximarik... Ez dakit nik zoin bekatu den handi, eta zoin tipi.

**ZINGIL**

Badakik Otsoaren alabak maite duela Ganelon... Predika-zak hori dela bekatu bat izigarria... Mutil eta neskatxa bat elgarrekin ibiltzea.

**TRIPERO**

Barne huntan bada holako mutil eta neskatxa frango... Ez baitakit ene predikua duten onartuko.

**ZINGIL**

Bekatu handia zer den erakutsi ondoan, gero erakutsiko duk zer den bekatu tipia... Badakik Charlemagne-ek nola duen gerla piztu... Nola duen jauzi egin auzoen gainerat... Nola, bazter guziak dituen su eta odoletan ezarri... Aski duk erraite hori dela bekatu tipia.

**TRIPERO**

Jendea ez da eroa, Monsieur Zingil... Ez dute holako ilarrik iretsiko...

**ZINGIL**

Aski duk esplikatzeari... Charlemagne-ek, horiek guziak egin dituela «para Dios y la Patria»... Nahi zuelakotz bere erresuma izan zadien «una, grande y libre»... Eta ikusiko duk jende hainitz izanen dukala hire alde.

**TRIPERO**

O Monsieur Zingil, enegant jinen diren jendeak, ez dira Jesuitak edo Dominikanoak... Holakorik ez dute konprenitzen... Nik mozkor lana bakarrik dakit ongi egiten.

**ZINGIL**

Preseski mozkor lana daiat manatzen. Mozkorreri dituk aisenik holako ziriak sartzen.

**TRIPERO**

Arras ongi, Monsieur Zingil, bainan nik ez dut batere ofizios saindatzeko gutziarik... Ni fraile, oi ez, ez, ez!...

**ZINGIL**

A, ez duka obeditu nahi, urde alfer tzarra... Erakutsiko daiat nik azote hunekin burutik behera emanaz, zer den buruzagien errespetoa... Tripustel usaindua! Habil hemendik ifernuko komunetarat... Han duk hi bezalakoen lekua.

**TRIPERO**

Ai, ai, ai... Zingil faltsua! Zorriek janen ahal dute zure burua!

**ZURIKO**

(*Agertuz*) Huts leku hauk! (*Debruak, jalitzzen dira... Kantuz*)

Airea, aire sanoa eta goxotasuna  
Ordain-azue laster hemengo peste usaina.  
Ez fida jendeak Satanen predikueri  
Har bere izaria bekatu bakotxari.  
Argi den egiatik, ez sekulan baztertu  
Den gezur abilenak, zangoak labur ditu.

(*Musika*)

**XX****GURI**

Azti jauna otoi deskantsa nezazu  
Ganelon bizi denetz, egia erradazu.

**AZTIA**

Ba andere printzesa, Ganelon da bizi  
Beti zutaz oroit da, ez zazula etsi.

**GURI**

Milesker azti jauna, o ene plazerra  
Harekin bizitzea da ene amets bakarra.

**AZTIA**

Andere printzesa, ikus zertan giren  
Euskalduna zirela ez duzu ahantziren.

**GURI**

Azti jauna eginbidez nuzu euskalduna  
Bainan bihotz barnetik naiz arras harena.

**AZTIA**

Euskalduna bazira, otoi eizu kasu  
Ez aipa etsaiari emaita musu.

**GURI**

Bakearen alde naiz, bedi laster etor!  
Gerlak ez du deus onik, zuk ere zazu aitor.

**AZTIA**

Guretzat bakea da, libro izaitea  
Gerla dugu egiten biltzeko bakea.

**GURI**

Hau ezin jasana, ez ote dezakegu  
Maite duguna har-eta, bakea gozatu.



## AZTIA

Agian beteko da zuk duzun desira  
Bainan anartean dugu gerlako tenorea.

*(Guri jalitzzen da)*

Egiazko bakea da, euskaldunentzat  
Besteak besten bainan gureak guretzat.  
Gurikerietarat ez ez gaiten eror  
Kenka gaxtoan gira, izan gaiten idor.

*(Musika... Gudari batzūn sartzen dira... Bat dago berex, jarririk eta ilun)*

## XXI

*(Kantua emaiten da, gudarien artean)*

«Zer duk nigarrez, zer duk hain ilun  
Euskaldun gudari  
Hator gurekin, pesta duk egun  
Gaitezen liberti  
— Ez, ez, ez naïke alai izan ni  
Ez baita libro Euskadi *(bis)*»  
«Lagunak hilak, gorputz lur pean  
Edo desterruan  
Gu berriz hemen, besten menean  
Preso gur'etxean  
— Ez, ez...»  
«Gauak goiz alba duela ondoko  
Lagun oroït hadi  
Luza gabe diuk bai libratuko  
Gur'ama Euskadi  
— Bai, bai, bai alai izango naiz ni  
Libratu-eta Euskadi *(bis)*»

## AZTIA

O gazteak zuetan da, gu denen esperantza  
Zuen indarrari josia dago gure bihotza.  
Zuek einex gizon lan, eta guk apez lan  
Dugun salba herria, bakotzak gure sailan.  
*(Emeki jalitzzen ari dela... gazteak kantatzen dute)*  
«Gu gira Euskadiko gazteri berria  
Euskadi bakarra da gure aberria.

Jaungoikoak emana, hor dugu herria  
Bere semek hiltzerat zergatik utzia  
Bat egin behar dugu Euskadi guzia  
Bildu gaiten anaiak gure da bizia.  
Gu gira Euskadiko...»

## XXII

*(Sartzen dira Otsoa eta Mezulari)*

## OTSOA

Mezularia mintza zaitte, denek kasu huni  
Altxa mutilak eta gaiten lotu armeri.

## MEZULARI

Adixkide lagunak, heldu nauzue erraitera  
Adarmotzen armada, berriz dela heldu hunara.  
Zaragozeko Moroeak, handik dute haizatu  
Orai Iruñan dago, hiria sutan eman du.

## OTSOA

Adarmotzak dira laster iganen hemendik  
Har armak gudari-ta, gauden prest oraindanik.  
Duena duenarekin, dugun etsaia ataka  
Eta gora Euskadi *(denek)* Euskadi askatuta!

*(Kantatuz: «Gu gira...» ... Denak ateratzen dira... Musika)*

## XXIII

## ZINGIL

Tripero, o Tripero!... Nun haiz, alfer tzarra!...

## TRIPERO

*(Agertuz, galtzen estekatzen ari)* Hemen naiz nausia... Orai ez dugu  
beraz galtzen laxatzeko astirik ere ukaiten ahal...

## ZINGIL

Adi-zak, Tripero... Gure aferak gaizki zohatzik hemen gaindi... Eus-  
kalduna dena gure menetik baztertzen ari duk.

## TRIPERO

Ez da ene falta, Monsieur Zingil... Miriku tzar horien falta da dena...  
Orai pentsatu dute mozkortzalen edaritik higuñtzeko erre-  
medioa... Ene klientik hoberena Baionako ospitalerat ere-



man dute tratatzeko... Eta orai, ez du gehiago arnorik jasatzen ere...

**ZINGIL**

Entzun-zak, Tripero, behar duk beste ofizio bat hartu...

**TRIPERO**

Zer nahi nauzu, berriz ere, fraile sar arazi!... Ez, ez, ez!... Ni, eman nezazu ostalero edo menttero, bainan ez dut beste ofiziorik onartzen.

**ZINGIL**

Ohart hadi, Tripero, mundua ari dela bestelakutzen... Lehenago, nork ere pagatzen baitzuen barrika arno gehienik-eta, hura zukan pasatzen bozetan...

**TRIPERO**

Ba, arrazoin duzu... Kontent naiz behin bederen aitortzen baitituzu ene merezimenduak. Nik eta arnoak eman ditugu kargutan, hainitz urtez, Euskal-Herriko deputatu eta jaun mera gehienak.

**ZINGIL**

Ba, bainan, orai emaztek ere boza emaiten ditek, eta emazteak ere behar ditiagu bildu...

**TRIPERO**

Ba, ari naiz frango polliki lanean heiekin ere... Lehenago guti ziren mozkortzen: Buhamesa batzu eta arrain saltzale batzu... Orai badituzte klianta onak, jende handitan ere... Debruen «piztaxak» biltzen baitituzte zonbaitek kazinotan eta salun pollitetan.

**ZINGIL**

Bon, Tripero, bainan hori ez duk aski... Leku hautako emazteak errekienik bilduko ditiagu gureganat, euskara horieri galarriz.

**TRIPERO**

Ba, badakit hori aspaldi... Ni, neskatxa guziera, erdaraz mintzatzen naiz beti, radioan bezala: Je t'aime chérie... Eta, badakit espainolez ere erraiten: Te quiero, mi amor... Bainan, ez dautate kasu handirik egiten... Aise hobeki ditut edari finekin enganatzen.

**ZINGIL**

Behar dik, hortan ere, jakin ofizioa... Neskatxa ergelenak dituk aisienik erdararat lerratzen... Hortako, behar dik ikasi behako batez ikusten, zoin diren neskatxetan ergelenak.

**TRIPERO**

Nik ikusten ditut hemendik neskatxa frango... Denak kasik erdaraz ari baitira solasean... Nago, zoin ote den horietan ergela ez denik!

**ZINGIL**

Hik, Tripero, konprenimendu ttipia duk neskatxetan... Hortakotz, hobe duk entseatzea emazte adinekoetan.

**TRIPERO**

Aspaldi ohartua naiz nitaz jelos zirela... Zuhaur antxutan ibiltzeko, ni ardi zaharretarat igorri nahia zirela. Ez, ez dut holakorik onartzen.

**ZINGIL**

Tripero tzarra, ez baduk obeditu nahi, igorriko haugu ifernurat, Tantaloren ondorat... Badakik Tantalo han nola dagon milaka urte hautan... Edateko dik bakarrik ur gazia eta jatekoa dik begi aintzinean, bainan sekulan ezin sar aho barnean.

**TRIPERO**

Tantalo bai Tantalo... Ez da zuk diozun bezain malurus... Atzo azkenik, kontrabandan, iretsiak ditu hamar Pernod.

**ZINGIL**

Urde alfer usaindua... Oraikoan ez duk eskapurik... Haugi hunarat. Makilarekin bizkar hezurra hautsi-ta ezarriko haugu su laratzetik zintzilik... Zintzilik lepo zokotik.

**TRIPERO**

Ai, ai, ai... Barka, Monsieur Zingil nausia, barka... Ez dut erranen gehiago holakorik... (*Jalitzzen dira tirabala*)

**AINGERUA**

(*Agertuz*)

Neskatx euskaldunak, ta euskaldun guziak  
Agian Satanen erranak, ez dira guretzat egiak.  
Mintzairak dirare Jainkoaren dohainak  
Euskara dezala mintza euskaldunak.

(*Musika*)

**XXIV****GOTOR**

(*Sartzzen da, gibeletik dituela gudariak... Etsaiaren zelatan dagotzi*)  
Gudari lagunak zaudete gorderik



Adarmotzak dituk, pasatuko hemendik.  
Hurbiltzen ari tuk, utz ditzagun sartzerat  
Eta apaila zaizte, jauzi egiterat.

*(Gordetzen dira. Adarmotzak sartzen dira, kantuz... Gudariak irrintzina  
jauzi egiten diote gainerat... Guduka egiten da... Adarmotzak oro  
biltzen dira edo ibesi joaiten... Bat, bisaia gordea, gelditzen da bizirik)*

OTSOA

Bat duk bakarrik bizi, ez hunki jaun hori  
«A la Nobia» bego, ohoretzat niri.

*(Guduka izigarri bat egiten dute buruz buru, bere gorabeherekin, Otsoa eta  
Ganelonek... Noizbait, Otsoak, Ganelon ezartzen du zangopean  
eta puñala altxatzen dio, azken kolpearen emaitako... Betbetan,  
Azitia agertzen da)*

AZTIA

Ez Otsoa, ez zazula hil  
Horren odolean, eskurik ez ibil.  
Eskatzen derautzut, grazi berezia  
Galdatzen dut enetzat, gizon horren bizia.

OTSOA

Nik hau ez hil behar, o bortxa dorpea  
Bainan nola bazter, zuk egin galdea.  
Fagore hau ez diot ein sekulan nehoi  
Zu zirelakotz jauna, dut eginen zuri.

AZTIA

Eskerrak Jaun errege, urrikaltzen baitzare  
Gertakari hau beti, izain duzu ohore.  
Lehoi bat bezala, badakizu gudukan  
Bainan berdin on zira, bakezko lanetan.

OTSOA

Gudari lagunak, goazen apailtzerat  
Altxa mutilak-eta, denak etor pestarat.

*(Musika. Jalitzen dira, salbu Azitia)*

## XXV

GANELON

Nigarrez jaun handia, eta belauniko  
Apalki emaiten naiz, eskerren bihurtzeko.

Nik nola zorra paga, Jainko gizon zira-ta  
Gaineke jaunak berak, zitzala sarista.

AZTIA

Ganelon xuti zaite, zaitzadan besarka  
Ongi eginak saria, berekin derauka.  
Bainan xo Ganelon, gorde-azu bisaia  
Ikusten dut hor norbait, dabilala nahasia.

GURI

O etsidura, o pena, o biziaren zama  
Hil hurranean naiz, lagun nezazu, jauna.  
Batzuek diote Ganelon, hemen hil berri dela  
Hori egia bada, ni ere hil nadiela.  
Jaun Aztia errazu, errazu zer dakizun  
Hemen zer gertatu da, zer gertatu egun?

AZTIA

Andere printzesa, nik ez dakit hainitz  
Jaun hunek dauzkizu aipaturen bi hitz.

*(Ganelonek bisaia agertzen du)*

GURI

Ganelon... *(Nigarrez, elgarri lotzen dira)*

*(Musika)*

## XXVI

*Aingerna sartzen da eta kantatzen du: «Bakearen urtxoa...». Kantu denbo-  
ran, Ganelon eta Guriri ekartzen diote lehenik lore buketa bat,  
gero, mantalin xuri bat, gero alegia esposatzen, Aztiak benedikati-  
tzen ditu. Azkenean, jendea agurtuz emeki jalitzen dira.*

«Bakearen urtxoa, oi urtxo ezta,  
Hegalez kurri zazu lur zabal guzia  
Kontsola gerla pean dagoken jendea  
Hilen haur ait'et'amak eta emaztia  
Kolpatua errestan dabilan trixtia  
Presoner doakabe, hilik den bizia  
Errozute deneri:

«Jende gaixoak  
Ez beha gau beltzari  
Bainan bai izarren





Bakea dela zueri»  
 «Bakearen urtxoa, jarraik bideari  
 Zure lili ezitia eskainiz orori  
 Mintza zaite etzanik dagon eritari  
 Bihotza bero zozu xahar hoztuari  
 Esperantza emozu kezkan den amari  
 Bere latza ken-ozu hilen ezkilari  
 Errozute deneri:  
 «Jende gaixoak...»  
 «Bakearen urtxoa, hemen zaite geldi  
 Lur hau da sakratua, deitzen da Euskadi  
 Zorte txar batek joak girare aspaldi  
 Denak anaiak-eta bizi bi alderdi  
 Gerla da berrikitan pasa hemen gaindi  
 Euskalduner urtxoa, otoi mintza bedi  
 Errozute deneri:  
 «Oi Euskaldunak  
 Ez beha gau beltzari  
 Bainan bai izarreri  
 Bakea dela zueri.»

*(Musika)*

## XXVII

### AZTIA

Jende maiteak huna bururatzen dela  
 Zuentzat muntatu dugun pastorala.  
 Pastorala hunek baitu erakaspen asko  
 Hemen eman dugu hetaz oroitzeko.

### AINGERUA

Gogoan har dezagun bake saildua  
 Ez dela armen bainan bihotzen fruitua.  
 Jainkoak erran dauku elgar maitatzeko  
 Hortarik baztertzeak ditu hiltzen asko.

### AZTIA

Gizona bezala da edozoin populu  
 Hari ere zor zaio berdin errespetu.  
 Euskaldunek denentzat galdatzen duguna

Bai bakea da eta bai askatasuna.  
 Gaiten beti denekin ibil eskuz-esku  
 Bainan gureak gure eta «gauden gu».

### AINGERUA

Agian zauztegu denak ongi utzi  
 Gaizki erranik balitz, zatzue ahantzi.

### AZTIA

Orai agurtuko dugu gure ikurrina  
 Eta bururatuko gure gaurko lana.

## XXVII

*Musikarekin sartzen dira dantzari eta gudariak... Emaiten dute Ikurrin dantza... Ikurrina itzulikatzean, Otsoak botatzen du azken pertsua.*

### OTSOA

O ikurrin sakratua, ibil hadi hegaldaka  
 Denetan kanta zak, kanta Orreaga.

*(Denek jendea agurtzen dute)*

## OIHALA



## LARTAUN

*(Pastorala antzeko antzerkia-1969)*

### Jokalariak:

SATAN  
IJITO  
LARTAUN  
ROMULO  
AINGERU  
KANONIGO  
OTSOA  
MINERO  
ARBASO  
MUTIL BAT  
URTXULA  
AUGUSTA

Mintzatzen ez direnak: Musikarien taldea, neskatx zerbitzariak, gudari kantabreak (8 edo 10), gudari erromanoak (8 edo 10), neskatxen taldea (8 edo 10), kantarien taldea, zaharren taldea (8 edo 10), mineroen taldea (8 edo 10).

### I

*(Kantabre gudariak sartzen dira kantuz, beren urrats berezian)*

«Kanta kantabre  
Bat bi  
Gureak gure  
Bat bi  
Etsaia zauku  
Jo ta zanpatu  
Kanpora bota  
Kanta kantabre  
Gureak gure.»

**LARTAUN:** *(Gudariak aginduz)* Kantabre! Ezker-ker!... Armak xut!

### II

*(Emaiten du «aintzin-predikua», bere moduan)*

Ni nauzue Lartaun, gudari agintaria  
Eta leku hau da, gure Kantabria.  
Erromanoak dira, gure lurraz jabetu  
Gudukan ari gira, hek nahiz bialdu.  
Etsaiak hemen nausi, ez dugu onartzen  
Norbera bere jabe, ez ahal da zuzen.

### III

*(Kanonigo sartuz, bere itzulia egiten du)*

**LARTAUN:** Agur Kanonigo, gure apaiz nausia  
Beraz Erromatik, zara itzulia.

**KANONIGO:** Ba aita sailduak, zuri nau igorri  
Eta aidean nauzu, berehala etorri.

**LARTAUN:** Erromanoekin gaur, baitugu gerla  
Aita sailduak gutaz, ba ote du axola.

**KANONIGO:** Ba, Aita sailduak, nahi luke bakea  
Ta eskatzen dautzu, bake egitea.

**LARTAUN:** Gauza errexha da, bake egitea  
Aski dute etsaiak, leku hauek uztea.

**KANONIGO:** Erromanoeri, diotet eskatuko  
Bakeaz zurekin, otoi mintzatzeko.

**LARTAUN:** Erromanoekin, gutxi naiz fidatzen  
Indarrak bakarrik, baititu leguntzen.

*(Gudariak aginduz)* Kantabre, itzul-tzull!... Aintzina-rat! *(Sartu bezala abestuz irten dira... Kanonigo ere irten da)*

### IV

**SATAN:** *(Sartzen da saltoka, irri algara gaxto batzuk boteaz)* Agurtzen zaituztet hemen zeraten belarri haundi guziak! *(Ipurdia eskuakin joaz)* Eta hau zuentzat, zor dautzuedan errespeto guziare-



kin!... Kanonigo ustel horrek, bakea omen du hemen gairi zabaldu nahi. Hortarako, seguru asko, nere laguntza izanen du. (*Berriz botatzén du bere irripar gaxtoa*)

**IJITO:** (*Asto bat ezin sar araziz ari da*) Hator ba hunarat, Satan kume kirtena!

**SATAN:** Adi-zak, hi, Ijito, errespetatuko duk gero nere izena!

**IJITO:** Nik ez nakien hemen zinenik, ez eta hain minbera zinela!

**SATAN:** Norat dakark asto hori!

**IJITO:** Asto hau dakart honarat, hemengo asto merkaturat!

**SATAN:** Hemen ez duk astorik!

**IJITO:** Zer dira ba hemengo hauek guztiak?

**SATAN:** Adi-zak, Ijito, errespetatuko duk gero hemengo jendea. (*Bere zigorraz jotzen du*)

**IJITO:** Ai, ai, ai, barkatu, Satan jauna! Ez naiz berriz horrela mintzatuko.

**SATAN:** Eta, aitor-zak hemen, denen aurrean, asto hori nundik dakarkan.

**IJITO:** Artikutzatik ekarria dut, han jarria bainuen bazkan.

**SATAN:** (*Berriz ere jotzen du*) Ez zakala gezurrik esan, Ijito zikina. Asto hau atzo gauean Saratik lapurtuta ekarria duk.

**IJITO:** Ai, ai, ai! Ni ez jo! Uste nuen gezurra maite zenuela!

**SATAN:** Gezurra maite diat, bainan ez ni engañatzeko esana den gezurra. Eta orain, esaidak zer egingo dukan asto honekin!

**IJITO:** Asto hau nahi nuke lehenbailehen saldu.

**SATAN:** Bueno, hain zuzen ni hunarat etorria nindukan asto baten erostera. Zenbat pezeta eskatzen dituk animala honengatik?

**IJITO:** Zu zarelako, jauna, eta adixkide bezala, asto hau salduko dizut hogei mila pezetatan.

**SATAN:** Hogeia mila pezeta? Nik asto kontuan gutxi entenditzen diat, bainan iduritzen zaidak horrelako hiru erosi daitezkeela prezio hortan!

**IJITO:** Burutik eginga zaude, Satan jauna! Kontura zaite asto hau Frantziako arraza famatuenekoa dela. Hiru urte dauzka eta, gainera, ernari dago!

**SATAN:** Asto hau ernari?... Ernari?... Nola egon liteke asto arra ernari? (*Jotzen du Ijito*)

**IJITO:** Ai, ai, ai! Barkatu, Satan jauna, barkatu!

**SATAN:** Ijito zorritsua hi! Noiz arte hola burlatuko haiz nitaz? Ala zer uste duk, ez naizela on asto bat arra edo emea den ezagutzeko!

**IJITO:** Barkatu, Satan jauna, neri beti erakutsi didate aingeruetan ez dela ez arra ez emerik. Ez nuen uste zuk gauza hoietan jakintzarik bazenukenik!

**SATAN:** (*Bere irripar gaxtoa botaz*) Bai, jakintza gai hoietan ni nauk errege. Eta joko hortan, jendeak dituk astoen antzekoak. Hemen-go asko dituk eskola gabeak, bainan joko klase hoietan den denak dituk batxileratuak.

**IJITO:** (*Irriparrez*) Nik uste nuen ijitoak bakarrik ginela modu hortakoak.

**SATAN:** Ez, Ijito, ez, saloi ederretan bilatzen dituk ofizio hortako «espezialista» famatuena.

**AINGERU:** (*Agertuz*) Kanporat hemendik. Mingaina lizun zikinak!

**IJITO ETA SATAN:** Barkatu, aingeru jauna!... Barkatu gaizki esanak! (*Irtén dira, Aingeruri keinu txarrak eginez*)

**AINGERU:** (*Abestuz*)

«Bekatu egitea da, gizon guziena  
Bekatuén aitorra, Jainkoak eskatzen duena.  
Satanen harrokeriez, ez beldurrean sar,  
Gure ahuleziaz, da bakarrik azkar.  
Lurrean zabaldu, zeru maitasuna  
Hori da bakearen, iturri seguruen.»

(*Ateratzen da*)

## V

(*Erromano gudariak sartzen dira, beren urratsean eta kantuz*)

«Gora Zesar Augusto  
Gizon eta jaungoiko  
Erroma nausi bego  
Bai orai ta bai gero.»

**ROMULO:** (*Gudariak aginduz*) Romani, ezker-ker! Armak xut! (*Abestuz*)

«Ni naiz agintari, izena dut Romulo  
Berdin atzarri nago, izanik ere lo!  
Munduan indar bat, bakar bakarra da  
Hura deitzen da, erromano armada.  
Gure mendean jarri, ta egon ixilik  
Bertzela jo ta hil, ez da hor eskaporik.



## VI

AINGERU: (*Agertuz*)

Indarrezko eskubidea, nahi bezain gogorra  
Bainan hari nausi, eskubidezko indarra.

ROMULO: Eskubide ederrena, ezer ere ez da  
Haren zaintzeko, indarrak ez bada.

AINGERU: Jainkoak Romulo, hau daitzu eskatzen  
Bakea egiterat, saiatu zaitezen.

ROMULO: Lartauni esaiozu, someti dadiela,  
Ta bakea duzu, izanen berehala.

AINGERU: Ez duzu Romulo, egiazko bakerik  
Bihotzak elkartzu, eiten dena baizik.

ROMULO: Bihotza deritzait, jende ahulen arma.  
Burukor jokatzan da, gizon den gizona.

AINGERU: Onartu zazu arren, Lartaun ikustea  
Eta buruz buru, harekin mintzatzea.

ROMULO: Bai, nahi duelarik, ta nahi duen tokian  
Prest naiz egiteko, harekin solasean.

(*Gudariak aginduz*) Romani, itzul-tzull!... Aintzina-rat! (*Sartu bezala  
irten dira abestuz... Aingerua ere irten da*)

## VII

(*Sartzen dira Urtxula eta Lartaun*)

URTXULA: Agur nere bihotz, senargai Lartaun  
Oso kezkatua, zugana nator gaur.

LARTAUN: Badakit Urtxula, zuk ez esanik ere  
Romulo ikusterat, zu izandu zire.

URTXULA: Zuregatik Lartaun, naiz ni hortaratu  
Bakea eginez, zu nahiz salbatu.

LARTAUN: Jakin zazu hauxe, betikotz Urtxula  
Zure senar baino lehen, kantabre naizela.

URTXULA: Hoi zer arpegia, ta solas garratza  
Lartaun ez zaidazu, urratu bihotza.

LARTAUN: Buruzagi denek, izan behar dugu gogor

Negar zotinekin, ez niganat etor.

URTXULA: Leku hauek beteak, dira su ta odoloz  
Emakume eta haurtxoen negarrez.

LARTAUN: Norengatik ote, horrenbeste makur  
Horien iturria, da Romulo maltzur.

URTXULA: Lartaun urruntzen naiz, bihotza lasturik  
Zugandik nuen itxoiten, bertze jokabiderik.

LARTAUN: Zintzo jokatzera da, bake bide bakarra  
Nahastu gabe mugatuz, egia ta gezurra.

(*Irten dira*)

## VIII

(*Sartzen da Kanonigo... Ondotik, Augusta*)

AUGUSTA: Ni naiz Romuloren arreba, deitzen naiz Augusta  
Honera etorri naiz, zehorrek eskatu-ta.

KANONIGO: Agur bai Augusta, nahi zintudan mintzatu  
Bakea sustraitzen, behar nauzu lagundu.

AUGUSTA: Hortarat jauna, naiz ni ere lehiatzen  
Romulori diot hori, sarritan aipatzen.

KANONIGO: Urtxula Romuloren, ganat izan baita  
Lartaunengana berdin, zoaz zu Augusta.

AUGUSTA: Urrats nekea hori, diotzut bihotzetik  
Hala ere banoa, bake egitegatik.

KANONIGO: Zoaz ba Augusta, zaitut lagunduko  
Zuretzat hemendik naiz, otoitzean ariko.

(*Augusta irten da, Kanonigo belaukatzen*)

## IX

SATAN: (*Agertzen da jauzi-oibuka. Keinu bat egiten du Kanonigo otoitzean ari dela  
ikustean*) Hator honera, Ijito. Badiat hiretzat lan bat jatotza... lan errexa, ta gainerat irabazi onekoa.

IJITO: (*Agertuz*) Lana eginez irabazi, nornahik egiten du hori. Lanik egin  
gabe irabaztea da neri gustatzen zaidana.



**SATAN:** Ijito alfer zitala, nik agindutakoa egingo duk. Bertzela, zigor honekin berotuko daiat bizkarra.

**IJITO:** Ai, ai, ai, ez ni jo, Satan jauna. Lana alde batetik edo zigorra bestetik, aitor-zazu badela tratu hoberik.

**SATAN:** Bueno, bainan adi-zak lehenik zer lan eskatzen daiatan... Pentsatzen diat abesten jakingo dukala.

**IJITO:** (*Parrez*) Bai, bai, Satan jauna. Xorta bat edanez geroz, deabruen errepikak ditut ateratzen.

**SATAN:** Oso ongi zegok hori, Ijito. Beraz, hona emaiten daiatan kargua: Elizan egingo duk kantore ofizioa.

**IJITO:** Zer, Satan jauna, nun duzu burua! Nik ez dut elizan ankarik sartzen.

**SATAN:** Ez ote dakik Kyrie-eleison kantatzen?

**IJITO:** Nik ez dakit Kirye-eleison kantatzen.

**SATAN:** Ta, Gloria in excelsis?

**IJITO:** Nik ez dakit, ez Gloria eta ez etzel-zik.

**SATAN:** Ta Sanctus, ta Agnus?

**IJITO:** Ez, ez; ez ta ezertxo ere.

**SATAN:** Bueno, hala ere pentsatzen diat ona izango haizela kantuetarako. (*Abestuz*) «Ora pro nobis...» Idek itzak belarriak. Hona nola kantatzen den. (*Abestuz*) «Ora pro nobis...».

**IJITO:** Bai, bai, hori ondo badakit. (*Abestuz*) «Iora pro nobis».

**SATAN:** (*Abestuz*) «Ora pro nobis».

**IJITO:** (*Abestuz*) «Iora pro nobis».

**SATAN:** Erabat ongi zegok hola. Beraz, hik eta nik ifernuko letaniak abestuko dizkiagu. Nik eginen diat eskaera, aski duk hik erantzuna botatzea. Altxa-zak nere jantzia atzetik eta goazen prososioan bezala, Kanonigo tentatzerat. (*Biak, esan bezala, badabiltza abestuz, Kanonigoren inguruan*)

**SATAN:** (*Errogatibetako letanien doinuan*) Kanonigo zorritsu, peste, usaindua!

**IJITO:** «Iora pro nobis».

**SATAN:** Tripa zaku, oilasko eta «Cognac Veterano»-z usteldua!

**IJITO:** «Iora pro nobis»

**SATAN:** Aker admirabilis!

**IJITO:** «Iora pro nobis».

**SATAN:** Zerri mutur purisima!

**IJITO:** «Iora pro nobis».

**SATAN:** Zizare kumea.

**IJITO:** «Iora pro nobis».

**KANONIGO:** (*Ari da keinuka, distrazioak ezin bentzituaz bezala*) Aingeru zaindaria zatoz ni laguntzerat. (*Aingeru agertzen da... Keinu egiten die Satan eta Ijitori... Hauek irten dira, beldurrez joak eta keinu txarkak... Aingeruak berekin darama Kanonigo*)

## X

(*Erromano gudariak sartzen dira, berekin datoz kantabre kateatuak, presoner eroriak*)

**ROMULO:** Guri oldartu zaizte, kantabre ustelak  
Horra zertaratu zauzten, piztu duzuen gerlak.

**OTSO:** Hemen ez zen gerlarik, zuek etorri aintzin  
Gaur gu gara galdu, ta bihar zuek berdin.

**ROMULO:** Gure menpean jarri, zuen Kantabrea  
Eta izango duzue, jan eta bakea.

**OTSO:** Bota zakurreri, jana eta bakea  
Bainan gizonari, bere jabe izatea.

**ROMULO:** Kondenua duzue, bi alderditarat  
Hi, otso, gurutzerat, bertzeak minetarat.

**OTSO:** Gora Kantabrea, gurutzea agur  
Ta pozoiari, lagunak, ez eduki beldur.

**ROMULO:** (*Bere gudarieri*)  
Gizon hori hartu, ta lotu gurutzeari  
Ixilduko da bai, basati harro hori.

(*Otso gurutzatzen daramate, kantabrek abesten dute beren kantua. Denak irten dira*)

## XI

(*Sartzen dira Kanonigo eta Romulo*)

**KANONIGO:** Zuregana, Romulo, bake eske nator  
Nere deiari ez zaite, izan bada gogor.

**ROMULO:** Ikusi dituzu, kondenua gizonak  
Sumeti daitezela ta, libratzen ditut denak.

**KANONIGO:** Kantabren artean da, janari eskasia  
Laster gosez hilen da, jendeen erdia.



**ROMULO:** Hori dute jauna, beren ikustekoa  
Sometituz izango dute, nahiko jatekoa.  
**KANONIGO:** Kantabreak biltzeko, ez ari indarka  
Baizik ez-titasunez ta bihotzez joka.  
**ROMULO:** Nere ofizioa da, armez jokatzeari  
Errenditzen ez dena, jo ta puskatzeari.  
*(Romulo irten da)*

## XII

**LARTAUN:** *(Sartzzen da)*  
Kanonigo jauna, heldu nauzu bakar  
Bihotzeko penak, zureganat nakar.  
**KANONIGO:** Zer duzu Lartaun, mintza zaite argi  
Batek baino biok, ikusten dute hobeki.  
**LARTAUN:** Hernaniko markesak, deraukan alaba  
Nere andregaia da, dakizun bezala.  
**KANONIGO:** Bai, ta badakit ere, andere Urtxula  
Bakea egin nahiz, borrokan ari dela.  
**LARTAUN:** Horrengatik dut bai, harekin auzia  
Bakea nola egin, hortan da guzia.  
**KANONIGO:** Nahi baduzu Romulori, nik diot esango  
Zurekin mintzatzerat, hunat etortzeko.  
**LARTAUN:** Datorrela bainan, ametsik ez egin  
Bilduko nauela, solas zuriekin.  
*(Lartaun irten da... Kanonigo kofesionarioan sartzzen da)*

## XIII

**SATAN:** *(Agertuz aurreko aldiaren bezala)* Kanonigo ustela! Ez duk bakerik  
hemen montatuko! Nun habil to, Ijito!  
**IJITO:** *(Agertuz)* Hemen naiz, hemen, Satan jauna. Beti bezala, zu zerbitzatzeko gertu-gertua.  
**SATAN:** Kanonigo hau, Ijito, behar diagu otoitz egitetik baztertu eta bertze zerbitzetan usatu.  
**IJITO:** Ez gehiago neri kantoretzakoa egitea agindu, arraiol!

**SATAN:** Ez, Ijito, badiat hiretzat bertze lan pentsatua.  
**IJITO:** Zer ote duzu ba bertze lan hori!  
**SATAN:** Behar huke, orain bertan, Kanonigo honekin kofesatu!  
**IJITO:** Hee! Kofesatu baino nahiago dut zizare biltzera joan.  
**SATAN:** Obedi-zak gero, Ijito. Bestela zigor honekin hartuko dituk hireak eta asto beltzarenak.  
**IJITO:** Ai, ai, Satan jauna, ez ba ni jo!  
**SATAN:** Belauniko jar hadi beraz kofesionario hortan, eta, pentsatzen diat bekatu guztiak zintzo aitortuko ditukala. *(Ijito ez-tulka ari da Kanonigo esnatzeko)*  
**KANONIGO:** *(Esnatzzen da)* «Aitaren»... Egizu «Aitaren».  
**IJITO:** «Aitaren» *(Ez daki bukatzen, keinuz baizirik)*  
**KANONIGO:** Kofesa zaite... Pentsatzen dut bekatuak esateko ohitura baduzula.  
**IJITO:** Bai, bai... Badut ohitura.  
**KANONIGO:** Esan itzazu beraz. *(Ijito abopetik juramentuka hasten da)* Zaude ixilik horrelako biraurik esan gabe! Lotsagabea zu!  
**IJITO:** Ez ahal didazu bekatuak esateko zerorrek eskatu? Horrela nahikoa ez badezu, askotaz pizkorragoak ere badakizkit.  
**KANONIGO:** Horrela jarraitzen baduzu, ifernuko sutan erreko zara.  
**IJITO:** Nere birauek baino askotaz kalte gehiago ez ote dute egiten elizan sarritan dabilzan jainkozale faltsu eta lapur hoiek.  
**KANONIGO:** Ez zara honera lagun urkoa kofesatzera etorri... Eta orain esazu! Ezer lapurtu duzu?  
**IJITO:** Gauza gutxi... Bueno, soka mutur bat bide ertz batetik.  
**KANONIGO:** Soka mutur horrek ez ote zuen ezer ere atzetik?  
**IJITO:** Bai, asto koxkor bati lotua zegoen. Ta, jakina, nahi eta nahi ez asto koskor hura ere neregana etorri zen sokaren atzetik.  
**KANONIGO:** Bekatu horren barkamena nahi baduzu, lapurtua jabeari itzuli behar diozu.  
**IJITO:** Ez ahal dakizu, jauna, inoiz ez dela lapurtu gabe aberasten. Utzi nazazu lehendabizi aberasten. Gero konponduko gera.  
**KANONIGO:** Broma gutxi gero hemen... Esazu orain eta ortziralez haragi debekaturik jan duzun.  
**IJITO:** Bai, jan dut hiru egun hauetan lurpean sartua zegoen haragitik. Bainan uretan pasa ondoren, baratxuri askokin jan nuen. Eta, egia esan, on besterik ez dit egin.  
**KANONIGO:** Ez ote dakizu ortziraletan ez dela haragirik jan behar.



**IJITO:** Bueno. Nahiago nuke bai, zu bezala, angulaz eta langostaz ase. Bainen kartera hutsa neukan ta...

**KANONIGO:** Nere eginak utzi itzazu neretzat. Eta esazu orain, ea zure emaztearekin zure gizon eginbideak ondo bete dituzun.

**IJITO:** Bai, bai, jauna, hortaz ez daukat kezkarik. Ondo betetzen det nere gizon eginbidea. Atzo azkenik, nere andreari emana diot zanpaldi bat ona.

**KANONIGO:** Holako aitormen ederraren ondotik, zer espero duzu nigan-dik.

**IJITO:** Absoluzio kokkor bat nahikoa nuke, gero San Antoniora joateko.

**KANONIGO:** Dotriñarik ez dakizu aski absoluzioa merezitzeko.

**IJITO:** Nik dotriña badakit edonork hainbeste... Ta gainera «Ave Maria» errezatzen badakit aurretik atzera eta atzetik aurrera.

**KANONIGO:** Horrenbeste dakizunez gero, esazu nork hil duen Jesukristo!

**IJITO:** Nik ez, benetan!... Nik ez! (*Xutitua, ibesi doa*)

**SATAN:** Nora hoa, Ijito?

**IJITO:** Hemendik ihesi, jauna! Gizon bat hil omen dute alde hauetan! Ta, seguru naiz, beti bezala, ijitoak gaituztela krimen horretaz akusatuko!

**SATAN:** Hago hemen, Ijito, edo zanpatuko haut!

**IJITO:** Ez, ez naiz egongo!... Ai, ai, ai! Ez jo, Satan jauna... Ai, ai, ai! (*Biak irten dira... Kanonigo ere irten da*)

## XIV

(*Sartzen dira Lartaun, Arbaso eta zabarren taldea*)

**ARBASO:** Ikusten diagu seme, nola den auzia

Gu denen hazteko duk, eskas janaria.

**LARTAUN:** Egia diozu, aita, ta horra zergatik

Agindu zorrotz hauek, ditudan emanik.

**ARBASO:** Zahar guziak gaituk, elgarretaratu

Eta jan gabezia, diagu aipatu.

**LARTAUN:** Zer dezakezue hortaz erabaki

Zoritxarrez solasek, gutxi balio dute.

**ARBASO:** Zaharrak izanik, ahuldutako jendea

Erabaki diagu, gure buruen hiltzea.

**LARTAUN:** Holakorik ez aita, pentsatu bertzerik

Jatekoa bilduko ahal dugu nonbaitik.

**ARBASO:** Guk jaten duguna, utziaz zuendako

Etsaiari diozue, hobeki erantzungo.

**LARTAUN:** Oi aita maitea, holakorik ez egin

zaharrak ez zaudete, munduan alferrik.

**ARBASO:** Gure erabakia, ez zukek atzera

Gorputzen botatzeko, arkaitzak behera.

Zuek zaitze geroa, zuek gure bizia

Segi burrukatzen, salba Kantabria.

Hurbil hunat lagunak, mundua agurtu

Ta gero leku hauek, betirakotz hustu.

(*Lartaun irten da. Zabarren taldeak abesten du, mundu boni azken agurra boteaz eta Kantabriari bizia eskainiz*)

## XV

(*Sartzen dira Romulo eta Augusta*)

**ROMULO:** Augusta nere arreba, ikusten nauzu ilun

Ez baitakit gerla hau, nola buka dezakegun.

**AUGUSTA:** Bai ohartua naiz, gure soldadoak.

Direla leporaino, hortaz aspertuak.

**ROMULO:** Erromatik ditut, izan berri txarrak

Greban jarri direla, hunat etorri beharrak.

**AUGUSTA:** Hala dut jakin nik ere, han omen diote

Ez Kantabriara joan, testamendua egin gabe.

**ROMULO:** Hortakotz Augusta, zoaz mezulari

Bakea egitea, eskatu iozu Lartauni.

**AUGUSTA:** Bai anaia Romulo, bakea egiteko

Hegalez bezain laster, ni naiz ibiliko.

## XVI

(*Minero eta mineroen taldea sartzen dira*)

**MINERO:** Giltzapetuak gera gu, lanera bialduak

Oiartzun Arditurriko, berun minetara.

Lagunak ez dezagun, hartu lan tresnarik



Etsaia ez aberasteko, gure izerditik.  
 Hona hemen belar bat, agin zugaitzarena  
 Dezagun hontatik jan, hau baita pozoina.  
 Huelgan gaitezen jarri, ez lana utzirik  
 Bainan gure bizia, lanari kendurik.

*(Mineroen taldeak abesten du langile oldartuen kantu gogor bat... Pozoin belar-  
 rra janez irten dira)*

## XVII

*(Sartzen dira Augusta eta Lartaun)*

**AUGUSTA:** Lartaun jauna, nik Augusta dut izena

Nere anai Romulok, igortzen nau huna.

**LARTAUN:** Augusta izan zaite, barne hontan lasai

Ta agertu zure anaiak, zer ote duen nahi.

**AUGUSTA:** Bakea nahi luke, tratatu zuekin

Eta eskatzen dizu, hortako zer egin.

**LARTAUN:** Hamar gizon bereak, ta bertze hamar gu

Borrokan nor nagusi, eiten diot apostu.

Hiru partidetatik, biren irabazleak

Beretzat izan bitza, eskubide guziak

**AUGUSTA:** Zure apostua dut, jakin araziko

Pentsatzen dut anaiak, duela onartuko.

## XVIII

*(Sartzen dira Romulo eta Urtxula)*

**ROMULO:** Lartaun agintariari, esazu Urtxula

Bere desafioa onartzen dugula

Hamar gudarikin, ilunabarrean

Hor izango nauzu, Hernio azpian.

**URTXULA:** Gerla bururatzea, bai dut zoriona

Bainan apostu hori, oi zeinen iluna

Lartaun gudu hortan, baita jokatu

Agian bizirik, da hortarik aterako.

*(Ateratzen dira)*

## XIX

*(Sartzen dira Satan eta Ijito)*

**SATAN:** Partida galdua diagu, Kanonigo saltseroak irabazi dik.

**IJITO:** Hobe, hobe. Horrela atsedean apur bat hartuko dut. Hor ari bainaiz lanez lehertua eta gutxi pagatua.

**SATAN:** *(Jotzen du Ijito)* Ijito alfer zerria, jakin-zak hire nausiak ez duela sekulan deskantsurik hartzen.

**IJITO:** Ai, ai, ai, ez jo, Satan nausia. Ez dut komunista naizenik esan, diru pixka bat gehiago irabazi nahi nukela bakarrik.

**SATAN:** Bai, arrazoi duk, Ijito, eta, hemendik aurrera, emango diat lan bat goi mailakoa. Irabaziko dukanari esker, Rotxild bezain dotore ibiliko haiz, kotxe eder batean, zigarro Habaneak erreaz.

**IJITO:** Hori da nere aspaldiko ametsa. Esaidazu arren azkar zer egin behar dudan horrela bizitzeko.

**SATAN:** Hemendik aurrera, eskoletako maisu haiz. Kantabriako haurrei eskola emango diek.

**IJITO:** Nun duzu burua, Satan jauna! Nik Kantabriz ezer ere ez dakit, nola izango naiz horko maisu.

**SATAN:** Horrengatik presiso aukeratu haut Kantabriako maisu bezala.

**IJITO:** Zer nahi duzu nik Kantabriako haurrei erakustea?

**SATAN:** Honako gauzak erakutsiko dizkiek: Latina, grekoa, inglesa, alemana, frantsesa, rusoa eta txinoa. Bai eta ere geografia, estratosfera, ilargia eta platillo bolanteak. Bai eta ere yenka, rokanrol, twist, sirtaki, judo, budismoa eta Massielen kantak.

**IJITO:** Otoi, zaude ixilik, Satan nausia. Horien laurdena ikasi gabe hemengo haurrei hustuko zaie kazkezurra.

**SATAN:** Horixe duk, hain zuzen, iritsi behar duguna. Hortaz, baita ere haur horieri erakutsiko diet ludi zabaleko gertakizunen ixtorioa. Goratuko ditut Napoleon, Zesar Augusto, Satan, Mao eta Karlos bosgarrena.

**IJITO:** Nik ez ditut gizon horiek ezagutzen. Nik ezagutzen ditudan munduko gizon famatu bakarrak hauek dira: Paulino Uzkudun eta Urtain.





**SATAN:** Bai, bai, aipatu behar dituk horiek ere. Denak berdintsuak dituk. Eta gainera, ez dituk emakumeak ahaztu behar. Gaur egun kejan dituk gizona zkoen berdin ez direla-ta. Aipatuko dituk beraz Ingalaterrako Isabel, Katalina tzarina, Brigo Bardot, Popeia eta Sandy Show.

**IJITO:** Bainan, jauna, nola nezake nik bakarrik lan guzi hori egin. Ez, ez, ez! Zure egin nahiak buruko mina ematen didate. Aski dituzu zerorrek erakustea gauza horiek. Ni banoa aspirina pastilla bat hartzera.

**SATAN:** (*Ijito jotzen du*) Hi, zapo arrastari zikina! Nun duk hire nausiaren errespetoa?... (*Aingerua agertzen da. Satan eta Ijito badoatzi kanpora iskanbila gorrian*)

## XX

(*Sartzen dira gudari kantabreak lehen aldian bezala... Neskatxan taldeak otoitz hunkigarri bat kantatzen du, kantabre gudarientzat bitoria eta snertearen zeruari eskatuz... Kantatu eta neskatxak irten dira*)

## XXI

(*Sartzen dira gudari erromatarrak, lehen aldian bezala. Bi gudari taldeak buruz buru bataila egiteko prest daude... Bi agintariek, kantuz*)

**ROMULO:** Hemen zaizte azkenean, kantabre harropuzak Romani, erditik puska, horien gorputzak.

**LARTAUN:** Kantabre, hona nun dugun, libratzeko eguna Gora Kantabria, bota irrintzina.

(*Bataila egiten dute... Lau erromano biltzen dira. Besteak ibesi doaz... Bi kantabro ere hilak daude... Hilak biltzen dituzte... Kantabreak kantuz irten dira*)

## XXII

(*Satan eta Ijito, elgarri telefonoz mintzo dira*)

**SATAN:** Nun haiz, Ijito? Hator azkar hunarat! Hartu-zak hire pasaporte. Erromara joan behar diagu.

**IJITO:** Erromara! Nik ez dut han ezer egitekorik!

**SATAN:** Bai, Ijito... Kantabre gudariak Erromara zoazik. Erromara soldadoen kontra bigarren borroka egitera. Tiber ibaiaren ondoan ditek partida. Joan behar diagu, hango bazterrak nahastera.

**IJITO:** Zoaz, nahi baduzu, bakarrik. Gainera ni gaixorik nago. Erroma inguruan badira aintzirak, xomorroz beteak. Xomorro hoiek kozka egin eta paludismoa biltzen da. Nik holakoren gutiziarik...

**SATAN:** Ijito madarikatua, ez zakala atera holako aitzakirik. Hemen ere baita Erroman bezainbat xomorro.

**IJITO:** Borroka hauek direla eta, hemen nago ohean. Andreak galtzak kendu dizkit inora atera ez nadin. Gainera, ni bezalako iji-toeri ez diete pasaportetik ematen.

**SATAN:** Ez bahaiz berehala etortzen, aguazilak bidaliko dizkiat hire bila.

**IJITO:** Bidali itzazu aguazilak edo nahi dituzunak... Ni ez naiz hemendik mugituko. (*Telefonoa bazterrerat uzten du, eta irten da*)

**SATAN:** Ijito zerri ustela hi!... Oiga, Ijito... Oiga! Aber? Oiga! (*Haserre gorrian irten da*)

## XXIII

(*Soldado erromanoak sartzen dira eta prest apailatzen «batalla» egiteko. Haien ondotik, Lartaun jausten da itxasontzitik eta bere laguneri mintzo da*)

**LARTAUN:** Jautsi txalupatik, mutilak, jautsi eta jarri zuen guda lekuan... Denak jausten zaretenean, laga txalupa... Bota horri ostiko bat eta doala zabalerat.

**MUTIL BAT:** (*Txalupa soka eskuetan*) Zergatik txalupa?...

**LARTAUN:** Gudua galtzen badugu, mutil, hilak izanen gaituk. Eta, hilez geroz, ez diagu txalupa horren beharrik. Baldin irabazle ateratzen bagara, chunka txalupen jabe izanen gaituk. Eta orai, mutilak, bota gure abestia. (*Kantatzen dute: «Kanta kantabre»*)

**ROMULO:** Romanil... Orai ez gira Kantabrian, baizik gure hiri nausian. Jo, hil eta garbi... Ez dadiela bat bakarra bizirik geratu... (*Kantatzen dute: «Gora Zesar Augusto»*)



## XXIV

*(Kantabrek botatzen dute beren irrintzina... Bataila hasten da. Bat, bi kantabre badoaz lurrerat)*

**LARTAUN:** *(Orroaz)* Sabeletik, mutilak! Ataka sabeletik. Burni xapa ipinia ditek bular gainean, arropa azpitik!... Ustelak!

*(Kantabrek gudua irabazten dute, Erromano guziak hiltzen edo ibesi joaten dira)*

## XXV

*(Berehala, tarterik utzi gabe, hilak biltzen dituzte... Jokalari guziak ematen dute «Bitori irabazia»-ren abesti bat...)*

«Zer zen gero gertatu, nahi baduzue jakin  
Erroma ta Kantabriak, bakea zuten egin.  
Lartaun eta Augusta, ziren biak esposatu  
Ta Laterango eliza Erroman zuten sortu.»

*(Musika)*

Oiartzungo eliza, San Esteban da-ta  
Lartaunek zuen lurra, horren eiteko eman.  
Oiartzun eta Erromako, bi eliz horien jabiak  
Horra zergatik diren, hola elgarri josiak.

*(Musika)*

Gaixo Urtxula aldiz, hobe ez aipatzia  
Torturaz hil zen, senargaiak utzia.  
Hontan bukatzen da, Lartaunen ixtoria  
Leiendak dion bezala, baitugu kontatua.

*(Musika)*

Baldin ikusgarri hau, bada zuen gustokoa  
Laster dugu berriz, ...-en emaitokoa  
Eta orai milesker, bai ta agur deneri  
Ongi ibili eta, egin ondo afari.

*(Jokalari guziak, kantatuz, azken ibilera bat egiten dute)*

BUKAERA

## ARALAR

*(Pastoral antzerako antzerkia-1971)*

## Antzeslariak:

**OBISPO:** Pastoralen modukoa.

**MIKEL:** Arkanjelua, bere ezpatarekin.

Mikelen lau zaindari, lau mutil dantzari.

**LIBERTARIO:** Gizon bestalari bat smokin eta sonbrero kopa-koa.

Lau atso sorgin, eskoba zahar eta panderuakin.

Lau edo gehiago abeslari.

**AGINTARI:** Abeslarien buru egiten duena.

**FRAILE:** Kaputxino zahar bat «integrista».

**TEODOSIO:** Erdi aroko zaldun bat.

**BIOLETA:** Erdi aroko printzesa bat.

**GOÑI:** Teodosioren aita.

**KONSTANTZA:** Teodosioren ama.

Orkesta ttipi bat.

## I

*(Sarrera egin bedi pastoralen antzera. Orkestak jotzen duela martxa airos bat, antzeslariak sartzen dira bi lerrotan: Onak ate batetik eta gaiztoak bertzetik. Beren ibilerak eta agurtzeak eginik, pastoraletan bezala, Agintarik bazterrean duela «Banderaria» abesten du)*

**AGINTARI:** *(Erdian)*

Agur jende guziak, hurbil ala urrunekoak.

Berdin agur deneri, izan jentil kristauak.

*(Ezker aldetik)*

Hemen ari garenak, gaituzue oiartzuarrak.

Ez zuek bezanbat baina, halere jende jatorrak.

*(Eskuin aldetik)*

Aralarrez argitzeko, idek belarri eta begi.

Esango baititugu, gezur bat edo bi egi.



(*Erdian*)

Nola hunat sartzeko, baituzue ordaindu.  
Baimena ematen dautzuet, nahi baduzue txalotu.

(*Denak ateratzen dira, musikaren martxan, jendea agurtuz pastoraletan bezala*)

## II

(*Agertzen dira Teodosio eta Goñi*)

**GOÑI:** Aizu, nere seme Teodosio, zure ama eta ni gogoetatuak gaude zure geroaz.

**TEODOSIO:** Zer duzue bada, o nere aita, nitaz horrenbeste axolatzeko?

**GOÑI:** Adina hor duzula, zurez-zure bizitzeko eta...

**TEODOSIO:** Eta zer?

**GOÑI:** Ez dirudi fraile sartu nahi duzunik.

**TEODOSIO:** Hori ez!

**GOÑI:** Ez eta mutil zahar gelditu nahi duzunik.

**TEODOSIO:** Hori ez; ahal badut segurik.

**GOÑI:** Beraz etorria duzu garaia, zure bizi lagunarekin aukera egiteko.

**TEODOSIO:** Hain zail ahal da, hori egitea?

**GOÑI:** Bai, seme, ez da errex aukera on bat egitea. Eta hortaz, nahi nizkizuke zenbait kontseilu eman.

**TEODOSIO:** Zure kontseiluak, o aita, beti izanen dira ongi etorriak.

**GOÑI:** Ez zazula sekulan ahantzi gu garela arrazako jendetarik eta ekar errespetua gure arrazako ohiturari.

**TEODOSIO:** Zer ba! Zer eskatzen dit gure arrazari zor diodan errespetuak?

**GOÑI:** Gure artean, desohore izigarri bat da bere emaztegaia esperantzetan ematea, ezkondu aurrean... Hortakotz kontseilu bat. Abusatu nahi baduzu emakumekin, abusa zaite populu apalekoekin, baina errespeta zure andregai.

**TEODOSIO:** Eta populu apaleko neskatxa bat balitz, nere obraz esperantzetan?

**GOÑI:** Horrek ez du garrantzi handirik. Uka haurra zureganik dela edo diru pixka bat eman eta kitto!

**TEODOSIO:** Bai, eta niganik amatzeko, bidean denez, egiten badit eskandala?

**GOÑI:** Jende horrek, deus ez dezake, indartsuaren kontra... Ez ote dituzu gure alde legegizonak, eta heien beso armatuak? Hala beharrean, urrun bidali amatu beharra. Izkuta dadiela eta izkuta dezala bere haurra! Gure jatortasuna behar duzu zaindu, jendearen aurrean. Jende herrestek ez dute, gu bezala ohorerik galtzeko ez eta beraz zaintzeko.

**TEODOSIO:** Oroituko naiz, aita, zure kontseiluak.

**GOÑI:** Eta, beste kontseilu bat ere... Oroit zaite, ez zarela bakarrik norbaitekin ezkontzen, bainan haren ontasunarekin. Aberatsarekin ezkontzen denak bi mahain baditu jateko... Ontasun gabearekin ezkonduz, mahain bat izanen duzu bakarrik, eta hura bientzat.

**TEODOSIO:** Andregai bat izan daiteke pobre, bainan etxe agintari ona. Harekin ezkonduz, ez da ontasuna jaten, bainan ugaritzen.

**GOÑI:** Bai, bai... bainan ontasun izana, seguruago da izango dena baino.

**TEODOSIO:** Ongi da, aita oroituko naiz, kontseilu hortaz ere.

**GOÑI:** Eta, oroz gainetik, oroit Goñitarren ondorekoa zarela. Gure etxea dela, hemen gaindi, zaldun etxerik indartsuena, eduki gora gure fama! Zabal gure larderial! Horra seme zure aitaren kontseiluak, bainan baten ikusbideak, baino, bizpahiruena hobe izaten baita, eska ere kontseiluak bizia ongi ezagutzen duten gizon adineko batzueri.

**TEODOSIO:** Bai aita, zuk errana eginen dut!

## III

(*Orkestak jotzen duela aita ateratzen da, eta sartzen dira, abeslariak eta Bioleta. Jendea agurturik, Bioleta ematen da panela leibodun baten atzean. Han ageri da, jauregiko leibo bat balitz bezala. Abeslariak abesten dute amodiozko kantu bat... Teodosio, Bioletaren amoros, hari begira dago. Kantua bukatzean denak ateratzen dira orkestak jotzen duela*)



## IV

**LIBERTARIO:** (*Sartzen da eta mintzo da, irri larri batzu eginez*) Bai, polita gertatzen zait!... Zera... Teodosio andregai baten miaketan omen dabila... Eta kontseilu beharretan omen da nolako aukera! Eta denek dakiten bezala, ni bainaiz andreekin ibiltzailea, eta heien ezagutzeko espezialista, horra zergatik dei egiten duen. Neri buruz ari da. Inõrenganik ez baitu izango, niganik baino kontseilu argiagorik.

**TEODOSIO:** (*Sartuz*) Agur, agur Libertario!

**LIBERTARIO:** Agur ba, Teodosio.

**TEODOSIO:** Hunarat deitu zaitut, zure argien beharretan bainaiz... Badakizu, gaurko egunean, eskatua zaukula gazteri, ezkontzari buruz egitea preparazio zintzo bat.

**LIBERTARIO:** Jokabide horrekin ados nago, ezkontza da ofizio bat... Ofizio bakoitzak, badauka bere teknika, inork ez luke ezkondu behar, ezkontzako teknika ezagutu gabe.

**TEODOSIO:** Eta nun ikasten da teknika hori?

**LIBERTARIO:** Neretzat, teknika horien ikasteko, Parisen da, eskola hobereena eta hurbilena. Zoazi beraz Pariserat, ahal bezanbat dirurekin eta han bizi zaite lasaiki. Zure ikastegiak izanen dira «Boitte», «Cabaret», «Sexy-Club», «Strip-relax»... eta holakoak. Horretan usu ibiliz zuzenduko dituzu zure herabetsun azpi-ilundurak eta burutik buru sakonki ikasiko dituzu, ezkontza zoriontsu bat egiteko jakin behar diren gauza guziak.

**TEODOSIO:** Horixe da nik nahi nukena, ezkontza zoriontsu bat egin.

**LIBERTARIO:** Hortakotz ba, behar ditugu ikasi amodioan obratzeko modu guziak: Frantsesa, indianoa, eta japonesa, kontzeptuala eta antikontzeptuala, naturala, erotikoa eta sadikoa drogatur, lotan edo... egiten dena eta abar.

**TEODOSIO:** Horiek guziak ikasi ondoan, zuk egin duzun ezkontza, zoriontsua izan ote da?

**LIBERTARIO:** Ez... mutil zahar gelditu naiz. Ez baitut inun aurkitu ahal izan, neri jakintza errabia emaiteko on ziteken andregairik.

**TEODOSIO:** Hobe dut beraz zure jakintza ez bildu, bestela andregairik gabe geldituko bainaiz.

**LIBERTARIO:** Hori zuk ikus! Bainan kontseilu bat. Ez har andregairik Aralar inguru huntan.

**TEODOSIO:** Zergatik ez?

**LIBERTARIO:** Hemengo neskatxa guziak direlakotz ahuntzak bezain basak, hego haizea bezain aldakorak, ijitoak bezain bihurriak.

**TEODOSIO:** Bizkitartean, nik ezagutzen ditut inguru huntan neskatxa arras jatorrak.

**LIBERTARIO:** Nun ote?

**TEODOSIO:** Bat, Lakuntzan.

**LIBERTARIO:** Lakuntza-untza, ahuntzaren putza.

**TEODOSIO:** Bertze bat sendo eta giñarria, Arbizun.

**LIBERTARIO:** Arbizuarra txostiko, astoak eman ostiko eta lepo hezurra hautsiko.

**TEODOSIO:** Aitor-azu, jauregitan ere ez dela aurkitzen, Etxarri Aranazko neskatxen parekorik.

**LIBERTARIO:** Etxarri Aranaz, kakute-mando zahar bat hil dute, haren jateko platerik ez dute, xerrien askatik, miki-maka jaten dute.

**TEODOSIO:** Denak belzten dituen zure mingain pozoituak, errespetatuko ahal ditu bederen Ataundarrak!

**LIBERTARIO:** Erreta jarri dezagun, egosi ta mina, Ataun ipurdi zikina.

**TEODOSIO:** Norat behar dut beraz jo, andregaietarat?

**LIBERTARIO:** Zoaz Zegamarat... Han biziko zira merke eta ondo: Zegaman egunez ikusi eta gauez eraman.

**TEODOSIO:** Denen kontra zernahi erraitea errex da. Eskatzen dautzudana da, norekin beraz behar dudana ezkondu?

**LIBERTARIO:** Inorekin ez eta denekin... ni bezala... Horra nere kontseilua.

**TEODOSIO:** Ni ez naiz, hortarik ari, nik nahi dut giza legean bizi.

**LIBERTARIO:** Ba, ezar-azu beraz soka lepotik, andrea etxean sartzea da behi bat etxean sartzea bezala. Jakin behar da behia zertarako den... andrea berdin.

**TEODOSIO:** Eta zuretzat, andrea zertarako da etxean?

**LIBERTARIO:** Etxe batean, behia baliatzen da lanerako eta haragitako... andrea berdin.

**TEODOSIO:** Eta gizona zertarako da?



- LIBERTARIO:** Gizona! Haragitako baizik ez. Ikusi duzu zuk zezenik lanean ari? Idiak ba, lanean aritzen dira eta heien iduri berdinekoak diren gizonak... ez baita munduan tristeagorik.
- TEODOSIO:** Ba, bi gogoeta eginen ditut zure, kontseiluez, bainan denenak behar baitira entzun, banoa orain Aralarko fraile ermita zaharrarenganat, ea harek zer dion ezkontzaz, entzuterat.
- LIBERTARIO:** Bai, bai... Kontseilu politik entzunen duzu horrenganik. Alabaina, fraile ermita zahar batek zer dakien emakumen gorabeheraz! Bat ikusi orduko bere txabolara ihesi joaten den ermitak zer behar dio erran andregai bat ezin bilduz ari den mutilari.

## V

*(Zoko batean, misteriotsu agertzen da fraile ermita... Teodosio mintzo zaio)*

- TEODOSIO:** O, anai fraile ermita, zure argitasun beharretan aurkitzen naiz.
- FRAILE:** Zer nahi duzu niganik?
- TEODOSIO:** Geroari buruz norekin eta nola apaila gogoetatua nabil.
- FRAILE:** Erran nahi duzu ezkontzea pentsatzen duzula?
- TEODOSIO:** Bai anai fraile!
- FRAILE:** Ongi egizkitzu zure gogoetak. Haragiko bizia, bizi peligrusua baita.
- TEODOSIO:** Bizkitartean, zure aita eta ama ezkondu ziren. Eta ez balira ezkondu gaur ez liteke hemen frailerik, ni kontseilatzeke.
- FRAILE:** Ba, dena hortan da. Oroit zaite Jainkoak egin zuela ezkontza haurren mundurat ekartzeko eta ez gorputz atseginen gozatzeko.
- TEODOSIO:** Andreakin elkartu behar balin bada bakarrik haurren ukaiteko, ez da gizonik lege hori zuzen bete dezakenik.
- FRAILE:** Hortakotz behar da gorputza bentzutu, egon dadien osoki izipirituaren pean eta haren zerbitzari. Gorputz horri jan-edianak neurtuz eman. Halabeharrean gategiz eta zilizioz gazti-gatu.
- TEODOSIO:** Nahi duzun guzia. Baina gizona ez da bakarrik. Emazteak ere hor du bere gorputza, bere gose-egariarekin.

- FRAILE:** Emazteak, bere aldetik bertze hainbeste egin dezala. Eta beren buruen jabeago egoiteko, senar-emaztek berex lo egin dezatela, bereziki garizuman bai eta ere bijili egunetan.
- TEODOSIO:** Bai, bai... bainan, nere iritziko ezkontza egina da senar-emazteak ohe berean etzateko eta ez bi ohetan.
- FRAILE:** Oheaz bertzalde, hor da ere gainerateko bizitza guzia.
- FRAILE:** Jainkoak egin zaitu zaldun seme, zure menpean izanen dituzu, ez bakarrik zure familia, baita ere zerbitzari eta maizterrak. Horien guzien agintaria, eta beraz Jainkoaren ordaina, zu izanen zara. Deneri erakuts zure larderia.
- TEODOSIO:** Erraitea erreza da.
- FRAILE:** Egitea erreza da, deneri ematen badiozute Jainkoaren beldurra, denek diren lekuan, goiz-arrats-eguerditan, elizako kanpanarekin erreza ditzatela ohitura diren otoitzak.
- TEODOSIO:** Jainkoak jakinen du zer eginen duten.
- FRAILE:** Igandetan begirada bat eman, ikusteko, han denak mezan diren eta norbait eskas balin bada, jakin meza zergatik huts egin duen.
- TEODOSIO:** Eta, bere faltaz meza huts egin balin badu.
- FRAILE:** Hura kastiga! Ez ote zira Jainkoaren besoa! Eta zure jauregian, neskaxa zerbitzariak izan ditela, komentuan serorak bezala, zure anderea dutela beren superior-agintari. Egun guziz meza entzun dezatela eta usu-usua otoitzak erreza elkarrekin. Emakumea duzu kreatura ahula. Gaztedanik behar zaio erakatsi bizirako diziplina.
- TEODOSIO:** Ez naiz lanik gabe, zuk kontseilatu guziak behar balin badi-tut obratu.
- FRAILE:** Betidanik, larderiak, diziplinak, eta andreak egin izan dute familia ala herria. Zu zara gaur Jainkoak izendatua bertute horien karguaz. Zure kargua bete-zazu. *(Musikak jotzen duela biak ateratzen dira)*

## VII

*(Musikarekin sartzen dira: Konstantza eta Goñi)*

- KONSTANTZA:** Zer dut ikasi! O nere senar estimatua! Gure seme Teodosio ezkontzerat dela abiatu?



**GOÑI:** Adinerat sartua da-ta, zer da egokiagorik? Ez ahal du ondo egiten, gu biok egin genuena egitea?

**KONSTANTZA:** Zure ihardespren lasaiak harritzen nau.

**GOÑI:** Eta ni, zure harritzeak nau harritzen! Zer ote da ba gertatzen?

**KONSTANTZA:** Gertatzen dena da eskandaloa... Eskandalo ikaragarria... ez bertzerik.

**GOÑI:** Eskandalo bat gure familian? Zer diozu!

**KONSTANTZA:** Diot, gure Teodosio andregaitzat hartzen ari den neskatxak, ez duela neskatxa izenik ere merezi.

**GOÑI:** Zer darasazu emakumea!

**KONSTANTZA:** Ba, badakit zuretzat nik errana ala ahuntzaren gauerdiko eztula berdintsu direla...

**GOÑI:** Bainan, emaztekoa, mintza zaite erran gogo duzuna erran-zazu.

**KONSTANTZA:** Gizonak beti hola zarete. Zuek bakarrik dituzue gauzak ulertzen. Guk ez dakigu ezer ere.

**GOÑI:** Ba, saila hasi genuen... Gure Teodosio neskatxa baten ondotik abiatu dela... Nor da neskatxa hori?

**KONSTANTZA:** Ez dut erran neskatxa dela, baizik eta neskatzar bat. Eta gainerat diot hori dela ibilki gure Teodosio bildu nahiaz...

**GOÑI:** Ongi da, bainan berriz ere! Jakiten ahal ote dut neskatxa hori nor den!

**KONSTANTZA:** Ez du izenik, ez ohorerik eta ez lotsarik.

**GOÑI:** Bainan nor da! Errazu nor den!

**KONSTANTZA:** Ez ahal duzu holako bat gure etxean sartzerat utziko!... *(Nigarrez)* Hasteko, ni ez naiz oraino aski zahartua, bertze bati nere etxe-andregoa uzteko!

**GOÑI:** Nork erran dautzu holakorik?

**KONSTANTZA:** Ez dut nik sekulan onartuko, buru-besoz ongi naizela, nere lekutik baztertua izatea...

**GOÑI:** Otoi, otoi, utz-atzu sintsakeriak eta goazen harira.

**KONSTANTZA:** Gaixo gure Teodosio! Holako haur ona! Ezin onartua dut bere amaren besoak dituela, neskatzar horren besotarat joaiteko.

**GOÑI:** Bainan, berriz eta berriz noren besotarat?

**KONSTANTZA:** Holako mutila!... Ez du ez bere falta... Berak ez du ezagutzen maltzurkeria eta uste du bertzeak bera bezala direla... Horra nola erori den neska galdu horren saretarat.

**GOÑI:** Oraintxe leporaino asea bainaz zure erran-merran eta errenkura nigartiez, edo mintza zaite garbiki, edo hemendik banao.

**KONSTANTZA:** Mintza ninteke, banaki nere solasari jarraikiko zintekela, bainan ezagutzen zaitut. Aski dut zuri bide bat erakustea, zuk berehala, kontrabidea hartzeko. Aspaldi da ez duzula bertzerik egiten. Bizkitartean ez naiz ni baitarik mintzo... Kasu hontaz mintzatzerat izan naiz, Aralarko fraile ermitarenaganat.

**GOÑI:** Eta zer erran dautzu fraile ermitak?

**KONSTANTZA:** Arras nere iritzikoa da, gure familian ez daitekela, onart holako ardi errebelaturik, neska hori behar litekela lehenbailehen Teodosion begitatik betikotz urrundu, norabait igorri, preso edo komentuan sartu.

**GOÑI:** Egiaz mintzo zara?

**KONSTANTZA:** Beti gauza bera! Zuretzat nere erranak dira beti dudazkoak beti sinesgaitzak! Zoaz zerone ermitarenaganat! Zoaz! Aralar ez da hemendik urrun. Badakit berdin ez dela zuretzat deus kontseilu onik haren ahotik baizik.

**GOÑI:** Ba, ba... Ikusiko dugu. *(Musikarekin ateratzen dira)*

## VIII

*(Musikarekin sartzen dira: Obispo eta Teodosio)*

**TEODOSIO:** Obispo jauna, bihotz min handi batek bultzaturik etorri naiz zureganat.

**OBISPO:** Mintza zaite lasai, Teodosio! Nere ahalmenetan den guzia egiteko gerturik nago, zu laguntzeko.

**TEODOSIO:** Huna Obispo jauna, zer zaitan gertatzen. Ezkontzeko bide-tan sartua naiz eta nere bihotzeko aukera egin dut, Ataungo alaba bat.

**OBISPO:** Pentsatzen dut alaba hori dela, bihotz eta fedez, pertsona jator bat.

**TEODOSIO:** Bai, nere ustez, alderdi hortarik, ez dauka itzalik.

**OBISPO:** Hobe hori baita beharrena.

**TEODOSIO:** Bai, bainan ez dute denek hola pentsatzen.

**OBISPO:** Zer ba!

**TEODOSIO:** Nere kontra ditut erroitik bai aita eta ama.

**OBISPO:** Zergatik?

**TEODOSIO:** Neskatxa hori ez delakotz, ez aberatsa eta ez izenduna?



- OBISPO:** Eta gero zer!... Ama Birjina ote zen aberatsa eta izenduna?
- TEODOSIO:** Hark, gurasoak ditu laborariak. Etxea berena dute. Eskolatu da luzaz seroretan egonik.
- OBISPO:** Beraz neskata horrela bada, nortasuna baluke.
- TEODOSIO:** Bainan ez da markesa ez eta kondesa, bere izena du Bioleta... Eta ez dut izen aurrekoz titrerik.
- OBISPO:** Bera da titre-egilea «titre eginak» ez ote du balio «titre ukanak» baino gehiago?
- TEODOSIO:** Nik ere horrela pentsatzen dut.
- OBISPO:** Edozein moldez, adinean sartua zara eta zu, baitzara ezkontzen eta ez zure gurasoak, zuri da aukera egitea.
- TEODOSIO:** Bainan, beldur naiz.
- OBISPO:** Beldur? Zertaz?
- TEODOSIO:** Badakizu nere aitak, ahalmen handiak dituela.
- OBISPO:** Ba, badakit Goñitarrak zaretela Nafarroako gorenatarik.
- TEODOSIO:** Aita eta amarekin, kasaila handi bat izan dut. Eta aitaren hitzak belarrian ditut: «Onez ez bada, katez lotzen ditut bihotzak».
- OBISPO:** Zer erran nahi zuen?
- TEODOSIO:** Beldur naiz, aitak ez ote duen, niganik urrunduko neskatxa hori, preso edo konbentuan sartuaz.
- OBISPO:** Ez ahal da hortaratuko!
- TEODOSIO:** Hortakotz etorri naiz zureganat. Iruñako jaun obispoa zarenaz geroz nere aita bil dezazun ezkontza hori onartzerat.
- OBISPO:** Ba... nere eginahalak eginen ditut... Zintzoki gauzak egiteko. Lehenik joanen naiz Ataunerat Bioletarekin mintzatuko naiz. Nahi baitut neronez jakin, nor den eta zer dion.
- TEODOSIO:** Milesker. Obispo jauna.
- OBISPO:** Gero ikusiko dut zure aita, eta zerbait on aterako ahal dugu urrats horietarik.
- TEODOSIO:** Berriz ere milesker, bihotzez, Obispo jauna! (*Musikarekin ateratzen dira*)

## IX

(*Bioleta agertzen da, moja arropetan, triste burni barra batzuen gibelean... kantu triste bat abesten du*)

## X

(*Musikarekin sartzen dira, Obispo eta Goñi*)

- OBISPO:** (*Haserre*) Zer ikasi dut zutaz, Goñi jauna? Egia ote da ataundar neskata gazte bat bidali duzula andaluz presondegi batera; ez zinuelakotz nahi ezkon zadien zure semearekin!
- GOÑI:** Ez da egia neskata hori presondegian dela... Moja komentu batean da eta arras ongi tratatua.
- OBISPO:** Ez neri erran neskata bat zorionsu daitekela komentu batean, han sartua izan delarik, bere nahiaren kontra.
- GOÑI:** Ez da komentuan sartua izan bere nahiaren kontra!
- OBISPO:** Zer diozu?
- GOÑI:** Neskata hori ez da zuk duzun aingerua. Eskandala handi baten ondotik izan da bere herritik urrundua!
- OBISPO:** Zer eskandala!
- GOÑI:** Neska galdu bat da hori, arrats batez aurkitu dute gizon ezkondu batekin zebilela. Arrastatua izan da. Lehenik denak ukatu ditu bainan zigortze on baten ondoren, denak aitortu ditu.
- OBISPO:** Bertze asko ere, aitortu ditu.
- GOÑI:** Ez badiezute larderia erakusten zure mendeko diren jenderi, laster gaindi hartuko dautzute.
- OBISPO:** Lasterrago oraino gaindia hartuko dautzute, larderia baizik ez badiezute erakusten.
- GOÑI:** Oroit zaite, Obispo jauna, gora mailakoek behar dugula elgar sustengatu, azpikoen jokoa egiten duzula eta zure buruari harrika ari zarela, jende herresta horien alderdia hartuz.
- OBISPO:** Gure Jainkoarentzat, jende guziak maila bereko gara eta kargutan garenak gure kargua dugu, jendeari zerbitzeko eta ez hontaz baliatzeko.
- GOÑI:** Hola jokatur, gure nafar ohiturak hausten dituzu eta gure herriaren etorkizuna funditzen duzu.
- OBISPO:** Eta zuk, hemengo neskata bat Andaluziara, preso zuzen-kontra bidaliz Nafarroa ohoratzen eta pizkortzen ote duzu?
- GOÑI:** Obispo jauna eramán dezagun bakotzak gure saila, elgar errespetatuz. Utzi Zezarri, Zezarren egitekoa.



**OBISPO:** Ados naiz hortan zurekin, baina Zezarrek ez dezala har Jainkoa, bere jokabide makurren tapagailu.

**GOÑI:** Oroit zaite Iruñan badela gobernadore bat.

**OBISPO:** Bai, eta oroit zaite, Iruñan badela obispo bat. *(Ateratzen dira musikarekin)*

## XI

*(Musikarekin sartzen dira: Obispo, Bioleta eta Teodosio ezkon jantzetan)*

**OBISPO:** *(Ezkontza benedikatu)* Teodosio jauna, nahi duzu kristau moduan bizi guzikotz hartu Bioleta, zure ezkon-laguna?

**TEODOSIO:** Bai, jauna!

**OBISPO:** Eta zuk, Bioleta, nahi duzu, kristau moduan bizi guzikotz hartu Teodosio jauna, zure ezkon-laguntzat?

**BIOLETA:** Bai, jauna.

**OBISPO:** Eman eskuak elgarri, benedikatzen dut zuen ezkontza: Aitaren, Semearen eta Ezpiritu Santuaren izenean amen. *(Ondotik ematen dituzte kantuak... edaten dute. Eta denak ateratzen dira)*

## XII

*(Musikarekin sartzen dira Fraile eta Libertario... Gerla kanpaiak entzuten dira, pastoraletan bezala. Exeri-ta altxatuaz, Fraile eta Libertario mintzo dira)*

**FRAILE:** Gerla kanpaiak! Gerla! Gerla dugu moroen kontra! Moro mahometanoak heldu dira trumilka Afrikatik, gure lurrari buruz kristau guziak nahi dituzte hil! Kristautasuna suntsitu!

**LIBERTARIO:** Datozila niganat, lana harrapatuko ditek, egina prest... aspaldi baita nere kristautasuna neronek suntsitu nuela.

**FRAILE:** Zutik, kristauak! Eutsi etsaiari! Armak har! Guduka denak! Zahar eta gazteak, gizon ala emazteak!

**LIBERTARIO:** Salbu mutil zaharrak! Nik ez diat zaintzeko ez familiarik eta ez erlijionerik! Axola guti diat beraz, batzu ala bertzeak, nausi atera diton gerla huntarik.

**FRAILE:** Hau ez da edozein gerla... Hau da gurutzada saildua... Ez bakarrik gizonen salbatzeko egina, bainan Jainkoa salbatzeko.

**LIBERTARIO:** To, badiagu zer egin, Jainkoa bera balin bada orain, salbatzeko gure beharretan.

**FRAILE:** Xutik, kristauak... Zoazte elizarat, Jainkoarekin baketzera... kofesa eta komunian... Eta gero gerlara... Etsaiak hil... Etsaiak garbi...

**LIBERTARIO:** Lehenago erraten zitekan ez hiltzeko! Orain berriz, denak hiltzeko. Ez diat gehiago deus ulertzen. Kontzilioaz geroz, gure erlijioa arras aldatzen ari ditek.

**FRAILE:** Etsai bat hiltzen duenak, irabaziko du indulgentzi erdi bat, bere bekatuarentzat. Bi etsai hiltzen dituenak indulgentzi oso bat.

**LIBERTARIO:** Lan egin azkar mutilak! Garaia laster etorriko duk, sari beraren irabazteko, beharko baitituzue hil lau edo bost moro.

**FRAILE:** Eta gizonak gerlan diren garaian, emazte egin dezatela penitentzia. Hautsa buruan, zilizioa gorputzetan. Inork ez dezala har plazera, ez eta ere ezkontzari doazkion atseginak.

**LIBERTARIO:** Fraile gizagaizoa! Berdin dik burniz inguraturik ere emakumen atsegin-bidea hetsiko diotenik ez duk aurkituko. *(Musikarekin ateratzen dira)*

## XIII

*(Musikarekin sartzen dira: Teodosio eta Bioleta)*

**TEODOSIO:** O zu, nere ezkon-laguna, bihotz-minez nago zutaz pentsatuz! Nere eginbidea da gurutzada saildua joatea eta nago zu zer bilakatuko zaren.

**BIOLETA:** Zuk erranari jarraikiko naiz, nere nahikunde guzia da bizirik itzul zaiten gerlatik.

**TEODOSIO:** Nere aitamek ez zintuzkete nahi nere emaztetzat. Halere ezkondu ginen. Geroztik heiekin bizi gara, baina nabaitzen dut zoin hotz agertzen diren, zuri buruz.

**BIOLETA:** Ez ote nuke hobe nere aitamekin bizitzea, zu gerlatik itzuli artio!

**TEODOSIO:** Holakorik ez, Bioleta! Kosta ahala kosta, behar duzu gure jauregian egon. Zu zira jauregian nere ordaina.





**BIOLETA:** Zu, nere ondoan zarelarik, zure jauregian norbait naiz, bainan badakizu Teodosio, zu gabe, ez naizela arrotz bat baizik, zure aitamentzat.

**TEODOSIO:** Badakit, Bioleta, nere aitamek ez zaitutela begi onez ikusten bainan, ni ez nintzake senar, ez eta gizon ez bazintut hemen uzten zor dizudan eta merezi duzun mailan.

**BIOLETA:** Eginen dut beraz sakrifizio hori, Jainkoari egun guziz, eskainiko diot zuretzat, zu gerlatik bizirik itzul zaiten.

**TEODOSIO:** Milesker, Bioleta... eta milesker ere Jainkoari, zu bezalako emaztea eman didalako. (*Musikarekin ateratzen dira*)

#### XIV

(*Musikarekin sartzen dira: Goñi, Konstantza eta Bioleta*)

**KONSTANTZA:** Zu, Bioleta gurutzada saindura joan baita gure semea eta jauregi huntako nagusi gaztea, nahi genituzke zurekin, bi solas erabili.

**BIOLETA:** Mintza zaitezte lasai, aita eta ama. Zuek erranen duzuen entzuteko prest nago.

**KONSTANTZA:** Ez gara gu, ez zure aita eta ez zure ama. Ez gaitzazula gu desohora, horrela deituz.

**BIOLETA:** Ohituraz eta legez, deitzen zaituztet «aita eta ama». Ez ote naiz zuen semearen emaztea.

**KONSTANTZA:** Errazu, orain arte, hola zinela. Haren itzalean, bazinen hemen zerbait. Bainan hura urrundu denaz geroz, neri eta nere senarrari da jauregi huntako gidaritza hartzea.

**BIOLETA:** Nik ez dakit Teodosiok errana baizik, eta erran dautana da jauregi huntan egoteko, haren ordezkari bezala.

**KONSTANTZA:** Zuk, zer dakizu jauregi hau nola behar den gobernatu? Oroit zaite nondik ateraia zaren. Ala zer uste duzu? Jauregi bat gobernatzea dela zerri bazkatzea bezala?

**BIOLETA:** Ez dut idurikatzen nehor hemen gobernatzea. Gehiegi balin banaiz hemen, aski nauzue hemendik bidaltzea. Segur naiz nere aitamek, goxoki eta gogo onez hartuko nautela berekin.

**KONSTANTZA:** Teodosioren nahia errespetatzeko, biziko zara gure jauregian. Bainan, ez duzu gehiago lo eginen hemengo dorrean den gela handian.

**GOÑI:** Legez eta ohiduraz gela hori jauregiko agintariena da. Gure semea ezkondu zelarik, gela hori eman genion. Bainan gomeni da, nere emaztea eta ni berriz gela hortan jar gaiten, gure semea gerlatik itzuli arte.

**KONSTANTZA:** Eta beraz zu, joanen zara lo egitera, gure zerbitzarien aldamenara. Eta janen duzu zeronek berex, ez baita gomeni, gure artean sar dezazun izenik gabeko presuna ezjakin bat.

**BIOLETA:** Hola denaz geroz, biziko naiz nere zokoan, bakarrik eta ixilik. Ez duzue nereganik izanen desgusturik. Ez hortaz kexa! (*Musikarekin ateratzen dira Goñi eta Konstantza. Hor berean gelditzen da Bioleta. Kantu triste bat kantatzen du*)

#### XV

(*Musikarekin, Bioleta ateratzen da eta sartzen dira Libertario eta atso zahar sorginak. Libertariok egiten duela bakarrizketa, lau atsoak inguruan ibilki zaizkio, zernahi postura bitxi hartuz*)

**LIBERTARIO:** (Irri) Zera... ni gerlaren alde naiz... gizonak, sanotzeko eta bertuteko bidean sartzeko, gerla du beharrezkoa. Hortako gerlaren alde naiz... Haatik bertzek egin dezatela... ni nere aldetik, asko sanoa eta bertuteduna bainaz gerlarik gabe. (*Atso batek, kilikatzen dio, kokotz azpian... kontentu dago*) Eta gerla badaezpadakoa da, jendeari lana emaitako. Gizon gehienak joan dira gurutzada saindura. Nork behar ditu heiek guziak ordaindu emakumen ondoan? Hortakotz ikusten nauzue lanez lehertua. (*Atso batek xukatzen dio izerdia*) Delako fraile ermita horrek, emakume guziak giltzatu nahi lituzke gerla garaiko, horiek ere berenak behar... Halere, askoz eta askoz arkume gehiago, nere korralean sartu nahiago, horrenean baino. Eta bee eta bee, bildotsak nonnahi sartzen. Horrelaxe egiten dugu guk lan aberriaren alde. (*Lau atsoak lotzen zaizkio, bi alde batetik, bi bertzetik eta denak, besoz beso josiak zalantzaka dabilten alde batetik bestera*) Beraz gerla da badaezpadakoa, eta gerla sortzaileak behar litezke kanonizatu... Ez ote dira, horieri esker, milaka martir saildu gehiago gure elizetako aldaretan? Azken gerlaz



geroztik, ez duzu gehiago saildurik gure artean... Beraz, azkar munta dezazuela gerla berri bat. Eta ahalaz gurutzaza modukoa. Hortarik ateratzen baita asko saildu gehiago. *(Musikak jotzen duela dantza erotiko bat, denak ateratzen dira farandola moduan)*

## XVI

*(Gerla bukaerako kanpialak entzuten dira... Sartzen dira Fraile eta Teodosio)*

**FRAILE:** Huna beraz, Teodosio, nun gure artera itzultzen zaren, gerla bukaturik.

**TEODOSIO:** Bai, anai fraile, moroak milaka hil ditugu, eta bizirik direnak ez dira, apur batez hunara itzuliko.

**FRAILE:** Jainkoaren nahia bete duzue, gizatar horiek hola suntsituz, baina Teodosio, gerla ez da sekulan bururatu.

**TEODOSIO:** Neretzat segurik, agian bai! Merezki ahal dut, hoinbertze neken ondotik pixka bat bakean bizitzea nere emaztearen ondoan!

**FRAILE:** Ha, Teodosio!

**TEODOSIO:** Zergatik suspira hori, anai fraile? Ala nere emazteari, zerbait gertatu zaio?

**FRAILE:** Ez zara neherekin, hemen gaindi, mintzatu?

**TEODOSIO:** Ez anai fraile, zu zara leku hauetako lehen presuna, gerlatik itzultzean aurkitzen dudana. Baina erradazu, nere emaztea bizi ahal da?

**FRAILE:** Bai, bizi da.

**TEODOSIO:** Osasunean ongi.

**FRAILE:** Bai, arras ongi.

**TEODOSIO:** Eta nere aitamak? Bizi eta pizkor, haiek ere!

**FRAILE:** Bai, Jainkoari esker.

**TEODOSIO:** Zergatik beraz zure arpegi ilun hori, nere etxeok aipatzean? Zerbait bidegabe gertatu ote da nere familian?

**FRAILE:** Zoritxarrez, bai! Zure aitamak izan dira hemen berriketan eta zure emazteaz erran dautatena, ez da segur izanen zuretzat bihotz altxagarri.

**TEODOSIO:** Zer ba?... Mintza zaite, eta mintza argi eta garbi.

**FRAILE:** Zure jauregiko dorrean da zuen lo egiteko gela.

**TEODOSIO:** Bai hala da.

**FRAILE:** Hango ohean, zuk libro utzi lekua, ez da huts egoten.

**TEODOSIO:** Zer... bertze gizon bat...

**FRAILE:** Bai, ixilka, gauaz, bertze gizon batek ordaintzen zaitu.

**TEODOSIO:** Nere emaztea hortaratua? Ba ahal daiteke holakorik?

**FRAILE:** Zure aitamek errana dautzut, errepikatzen.

**TEODOSIO:** Nere emazteak hori egin! Neri... Banoa berehala, nere oho-rearen xuritzera.

**FRAILE:** Bai, zure eginbidea da!... Belar txarra atera baratzetik! *(Musikarekin ateratzen dira, biak)*

## XVII

*(Hil kanpialak ari dira, Teodosio doi bat argitua, dorreko gelaren ate aurrean dago)*

**TEODOSIO:** Huna nere gelako atea... nor eta zenbat ote dira barne hortan? Beha dezagun serraila zulotik... Bat... bi... Bai, bi dira. Bi bultu mantapean! Beraz egia zen. Egia ikaragarria! Ni hainbertze pairamen eta peligrotan ibili nintzen garaian, nere emaztea, nere ohean atsegin zikinetan!... Baina etorria da garbitasuna egiteko garaia. Ez batek ez bertzeak, ez dute ikusiko bihar goizeko argia... *(Puñala eskuan brastakokan sartzen da gelara... aditzen dira bi intzirin... berriaz agertzen da)* Bi zorri gutiago mundu huntan? Ha nere bizitza! Ez nuen uste hoinbertze pairatzeko etorria nintzela, mundura! Oxala ez banintz sortu, edo bederen, gerlan hil banintz! Horra non naizen berriro bakarrrik!... Bakarrrik eta bihotz zauritua... Zer da hor?... Nor heldu da hemen?

**BIOLETA:** *(Agertuz)* Zer! Zer dira hemengo intzirin eta arrabotsak? *(Bere senarra ezagutuz)* Zer!... Zu hemen! Teodosio!

**TEODOSIO:** Zu! Zu! Bioleta!... Ez nezazula hunki... odola baitut eskue-tan! Ez zinema zure ohean!

**BIOLETA:** Ez zu hemendik urrunduz geroz, zure aitamak jabetu ziren gure gelaz eta oheaz... Hek biak dituzu hor lo daudenak.

**TEODOSIO:** Biak hil ditut.

**BIOLETA:** Zer!



**TEODOSIO:** *(Nigarrez)* Nik zer egin diot Jainkoari? Hoinbertze zerbitzatu dudan Jainkoa, zergatik ote da hola neri jazartzen? *(Musikarekin ateratzen dira. Abeslariak kantatzen dute hil kantu bat)*

## XVIII

*(Musikarekin sartzen dira Obispo eta Teodosio)*

- OBISPO:** Krime handia egin duzu, Teodosio, hola zure aitamen hiltzea.
- TEODOSIO:** Ez ditut gaxtakeriaz hil, bainan enganatua izan naizelakotz.
- OBISPO:** Ez da hoin itsuki odolik isurtzen, kastigua ematen da juzgatu eta gero.
- TEODOSIO:** Nere aitamen hobena ere bada, zergatik kendu zuten nere emaztea gelatik. Zergatik, nere emaztea beztu dute fraileari kontatuz hala ez direnak.
- OBISPO:** Bai, nahi dut zure krime arintzen dutela zure aitamen huts horiek, bainan halere faltadun gelditzen zara.
- TEODOSIO:** Nere bekatu horren barkamenduztat, prest nago egiteko emanen dautazun penitentzia.
- OBISPO:** Bai zure egiteak, eskandala sortu du kristauen artean eta beharrezkoa da denek dakiten bekatuentzat, denek jakinen duten penitentzia.
- TEODOSIO:** Eta, zer liteke penitentzia hori?
- OBISPO:** Nere iritzia da, behar zinukela gorputza gategaz inguraturik, zenbait urtez bizi, Aralarreko mendian, fraile ermitak bezala.
- TEODOSIO:** Onartzen dut zure kontseilua eta bihar beretik Aralarreko mendian arkaitz zulo batean hasiko dut ermiten moduko bizitza hori.
- OBISPO:** Ermiten erregla da: Zortzi ordu otoitz, zortzi ordu lo eta zortzi ordu lan. Ongi litzaiket, lan bezala, kapilla tipi bat altxatzen bazinu Aralarreko mendi kaskoan, San Mikel arkanjelua ohoretan.
- TEODOSIO:** Neretzat ez da lan laketgarria, hori ere hitz ematen dautzut. *(Musikarekin ateratzen dira)*

## XIX

*(Musikarekin sartzen dira: Fraile, Libertario eta lau atso sorginak. Hauek frailez burlatzen dira mintzatzen den aldi guziz)*

- LIBERTARIO:** Zure kontsolagarri etorria naiz, anai fraile, lau neskatxa alegre hauekin.
- FRAILE:** Urrunt neregantik mundutiar solasak!
- LIBERTARIO:** Badakit, Teodosio gategaz inguratua, Aralarreko mendi hontan jarri denaz geroztik zure bisitariak gutitu direla. Hola da gaurko mundua, konkurrentzia da errege.
- FRAILE:** Bakea otoi neri!
- LIBERTARIO:** Dena da publizitatea ongi egitea... Eta hortan nausitu zaizu Teodosio. Hark bederen, bi presuna hil ditu... Eta gainera bere aitamak... Eta ez da alfer bizi, zu bezala, bere eskuz, kapilla bat altxatzen ari da Aralar gailurrean.
- FRAILE:** Utz nezazu nere gisa!
- LIBERTARIO:** Zureganat etorria naiz nere gisako publizitatea proposatzen. Asko turista ibiltzen baita hemen gaindi, utziko daukizut zure gomendio lau neskatxa hauek. Gure dantza batzu eskainiko diozkate turisteri eta berdin bertze zerbituak ere eskatzen duteneri.
- FRAILE:** Fuera hemendik lotsagabea!
- LIBERTARIO:** Lotsagabea! Zergatik?... Ez ahal dute holakorik egiten gure arteko asko kristau jatorrek? Eta kontzilioaz geroztik, ez ote dute fraileek ere neskatxekin lasaiago gobernatzeko ohidura?
- FRAILE:** Ixilik zu mingain madarikatua!
- LIBERTARIO:** Nik bilatzen dudana, Teodosiok zuk baino zerbitzu gehiago egiten diola inguruari... Bere kapillari esker, ardotegi eta hotel batzu ere muntatuko dira Aralarren... Eta, horko artzainek ere diru eginen dute, gaztaia eta mamia salduaz beren txaboletan.
- FRAILE:** Noiz artio, Jaungoikoa, tentatuko nau ifernuko debru honek?
- LIBERTARIO:** Ez gaizki har nik erranak! Saindutu nahi duen fraileak, ez ote du jakin behar jasaiten? Neri esker, merituak irabazten dituzu. Eta Teodosiori esker libertitzeko peregrinazioak egiten jan eta edan gabe... Ekarri kamiunka zardina zaharrak. Eta jotake, jar dadiela gure gaztedia!



**FRAILE:** Ez zarenaz geroz ixiltzen, ni banoa hemendik eta Jaungoikoaren  
 madarikazioa dela zurekin.

**LIBERTARIO ETA ATSOAK:** (*Lotuz fraileari*) Ez joan!... Ez joan fraile...  
 Egon gurekin. (*Musikak jotzen duela lasterka ibesi doa frailea  
 ondotik jarraitzen zaiatzkiola bertze guziak*)

## XX

(*Musikarekin sartzen dira: Mikel arkanjelua bere zaindariaekin, Obispo,  
 lau abeslariak, Bioleta, Teodosio gatez inguraturik. Teodosio ematen  
 da belauniko, arkanjeluaren aurrean... bertzeak inguruan*)

**OBISPO:** Teodosio, Mikel arkanjeluaren aurrean jakin arazten dautzut,  
 zure penitentziako garaia bukatua dela. (*Gateak kentzen  
 diozkeala, sekulako arrabots utsalak entzuten dira kanpotik. San  
 Mikelek ezpata altzatzen du arrabotsari buruz. Oihuz mintzo*)

**SAN MIKEL:** Ixilik ifernuko indarrak! Fuera hemendik izpiritu gaxto, basa  
 pizti eta mozorro guziak, utzi libro leku hauek. (*Denek  
 abesten dute Aralarreko San Mikelen kantika*)

Agur Mikel aingeru  
 Agintari haundia,  
 Izan beti tronutzat  
 Aralar mendia!

Aditu euskaldunen  
 Hitz minez beteak  
 Bota Euskal-Herritik  
 Debruen jendeak.

Bakarrikan nahi dugu  
 Gure Jaungoikoa  
 Fede bat, bataio bat,  
 Bihotz bat, osoa.

Atera-zazu Mikel  
 Ezpata zorrotza  
 Dragoi liberal hori  
 Utzitzeko hilotza.

Bazoaz Aralarra  
 Aingeru santua  
 Zerua iristeko  
 Eman-iguzu eskua.

(*Bitartean Obispoak gateak kendurik Teodosiori, Bioleta ematen dio ondoan.  
 Kantika bukatzean, antzezlarik guziak agertzen dira eta pastore-  
 tan bezala, agintariak ematen du, azken predikua*)

**AGINTARI:** Huntan da, jende onak, bukatzen gure antzerkia.

Horra Aralarreko kondaira, gezur ala egia.  
 Elkartu gira hemen, denak anaitasunean  
 Horrela batu gaiten, San Mikelen babesean.  
 Esker on deneri, maitasun eta amodio  
 Oroit Aralarrez eta eutsi hil artio.

OIHALA



## ORRIA 778

*(Pastorala antzeiko antzerkia-1974)*

### Jokalariak:

ARITZA  
OTXOA  
OBISPO  
GUDARI  
ZAINDARI  
ROLANDO  
OTON  
MUSTAFA  
AIXA  
MUEZIN  
MEZULARI  
FATMA  
MOZKOR  
ALI  
ALGUAZIL  
GUDARIAK

## SARRERA

*(Pastoraletan bezala, jokalariek guzkiek dute sarrera, hiru taldetan, talde bakoitzak duela urrats egiten bere doinu berezian, frankoentzako: La Madelon; musulmanentzako: Ravaja la Muker; nafarrentzat: Las vacas del pueblo. Doinu hauek kantatu gabe. Ezenean borrela jartzen dira: Musulmanak ezkerrean; frankoak eskuinean; nafarrak erdian. Aintzín peredikua emana izan bedi kantatuz eta ibiliz pastoraletan bezala, musika eta guzji)*

Agur agur jende onak  
Emazte ala gizonak  
Gu Oiartzungo eta zuek hemengo  
Baina denak anai-arrebak elgarrendako.

Zuen aurreko antzezlariek  
Hiru taldetan dira jarriak

Frankoak eskuinean, musulmanak ezkerrean,  
Nafarrak aldiz bien erdian.

Zortzigarren mendean Orrian zer zen gertatu  
Askotan dukezue aditu  
Halere gaiten berriz oroitu  
Nola nafarrek zuten frankoa zanpatu.

Musulmanak hego aldetik  
Frankoak aldiz iparretik  
Nafarroa izan da betidanik  
Hertsatua bi etsai haiengandik.

Beraz orain gure modura  
Agertuko dugu Orriko kondaira  
Eta dautzuegu ohi den bezala  
Mozkor eta zakurrak hemendik kanpora.

*(Denak ateratzen dira sartu diren moduan)*

## II

*(Pastoraletan bezala badira bi neskatxa zerbitzari. Hauek erdian jartzen dute Aritzaren tronua. Aritza sartzen da musikarekin, bere gudariak inguratua eta jartzen da tronu gainean)*

**ZAINDARI:** *(Agertuz)* Errege Aritza, Rolando da, atean, Carlo Magnoren ordezkaria. Zurekin nahi omen luke mintzatu.

**ARITZA:** Sar dadiela.

**ROLANDO:** *(Sartuz)* Agur, errege jauna... Agur gudari ohoragarriak.

**ARITZA:** Agur, jauna.

**ROLANDO:** Ni naiz Rolando, Carlo Magnoren ordezkari lehena. Ez zarete jakin gabe nola, Afrikatik musulmanak sartu diren Europara... nola Espainia guzia beretuz etorri diren Zaragozaraino... nola indar ikaragarri baten jabe diren eta preparamen ari diren, azken burruka baten, Europa guziaz jabetzeko.



**ARITZA:** Ez dakit, Rolando jauna, gaurko egunean, nor den Europa guziaz jabetzen ari... Ez ote Carlo Magno bere armada ikaragarriekin?

**ROLANDO:** Carlo Magno ez da, Aritza jaun erregea, Europaz jabetzen ari, baina Europa libratzen... Ez bakarrik Europako gizonak libratzen baina gure kristau erlijioea salbatzen.

**ARITZA:** Honara berria etorri da, nola gure Nafarroako lurretan sartzen ari zareten, nola zenbait hiriz zuen soldadoak jabetu diren. Hori ote da gu libratzea?

**ROLANDO:** Aritza jauna gure xedea ez da Nafarroaz eta Espainiaz jabetzea, nafarrari eskatzen diogu utz gaitzan bere lurretatik pasatzen, joan gaiten Zaragozaraino hango Mustafa zantzerara.

**ARITZA:** Mustafa aurkitzera joateko, asko bide baduzue, Nafarroan gaindi iragan gabe... gu, Mustafarekin bakean bizi gira. Ez dugu arrazoirik hari oldartzeko ez eta ere haien etsaiari laguntzeko.

**OTXOA:** (*Gudari aintzindaria*) Nafarroak nahiago du hil, ez frantses mendean egon.

**ROLANDO:** Hola denaz geroz, aski duzue hiltzea, gure armada lur hontan sartuko da... Nafarroa ez baita gehiago izanen nafarrena baizik frantsesena.

**OTXOA:** Gudariak, gizon hau hil dezagun. Holako mezurik, zein nafarrek dezake entzun?

**ARITZA:** Ez gudari lagunak libroki sartzera utzi duguna, doala libroki kanpora.

**OTXOA:** Fuera hemendik hi ustela! Erraiotek hire soldado frankoeri, Nafarroako ezurrera sartzen diren zeriak, nafarrek dituztela gazitzen.

**ROLANDO:** Geroak erranen. (*Ateratzen da zalu-zalua. Bertze guziak ere ateratzen dira, musikarekin*)

### III

(*Mustafa sartzen da bere gudariekin, musikaren doinuaren eta jartzen dira aurrenekoan bezala*)

**MUSTAFA:** (*Profeta moduan, jestu handi batzue eginez, oihuz*) Ala! Ala!... Zatoz gu laguntzera, zinaurriak bezala, etsaiak bultzaka heldu zaizkigu gure lurretara, Zaragoza, gure hiri hau laster izanen da kristau madarikatuz inguratua. Baina ez gira haien jaungoikoaren beldur... Gurekin dira Ala eta Mahoma bere profeta. Orain beretik lot gaiten denak gerlari... gerla hau saildua da. Alak dauku eskatzen. Huntan hiltzen dena Alak bere zeruan hartuko du berehala. Zenbat etsai hilko baititugu hanbat sari hobeto izanen dugu... Hil beraz etsaiak, hil, hil, hil, hil, hil.

**DENEK:** Hil, hil, hil, hil.

**MUSTAFA:** Moztu hoi lepoak, zulatu hoi tripak, puskatu hoi anka eta besoak.

**DENEK:** Hil, hil, hil, hil.

**MUEZIN:** (*Letania galdera egiten du, arabe muezin moduan. Denek erantzuna ematen diote abestuz*) Gure etsaia hil dezatela; pesta, kolera, xarranpiña eta kakeriak.

**DENEK:** Bai, bai, Ala!... Hola izan dadiela!

**MUEZIN:** Legorteak erre ditzala horien baratz, landa, eta soro guziak eta esne xortarik gabe gelditu ditela horien emazte eta alabak.

**DENEK:** Bai, bai, Ala! Hola izan dadiela.

**MUEZIN:** Hauts eta porroska ditela horien gerlako karro eta tresna guziak eta horien soldadoak suntsi ditela, elgarri ipur-zulotik sartuz puñal eta lantza labur eta luzeak!

**DENEK:** Bai, bai, Ala! Hola izan dadiela.

**MUEZIN:** (*Bozgoratuz*) Denek leher egin dezatela lehenbailehen eta batez ere beleak, otsoak, azeriak, hoi haragia zupaturik utzi dituztela eguzkitan erretzen horien gorputz zuriak.

**DENEK:** Bai, bai, Ala! Hola izan dadiela.

(*Denak ateratzen dira musikarekin pastoraletan bezala*)

### IV

(*Mozkor eta Ali sartzen dira beren gisako musikarekin*)

**MOZKOR:** Entzun dut alguazilaren bandoa! Laster Iruña, gure hiri hau inguratuko omen ditek frankoek.



**ALI:** Bai, Iruña lehenik eta gure hiria Zaragoza, ondotik. Ba, eta akabo nere kinielak.

**MOZKOR:** Hire kiniela.

**ALI:** Ba, azken kinielan irabazi nintian hoge mila pezeta. Iruñara etorri nauk Zaragozatik, behar nituela hemen kobratu hoge mila pezeta hauek. Erabaki nian behar nituela lasaiki San Ferminetan pasatu, Tres Reyes hotelean gela hartuz. Eta orain akabo nere dirua, akabo zezen lasterkadak eta txarangak.

**MOZKOR:** Hori guzia zuen kulpaa duk, urde musulman ustelak.

**ALI:** Gure kulpaz!... Nola!

**MOZKOR:** Ez bazinate Afrikatik huna etorri, ez zukan frankorik guri oldartuko. (*Arropatik hartuz*) Frankoak ala musulmanak denak berdinak zarete.

**ALI:** Ai, ai... utz nazak gizona.

**MOZKOR:** Denak berdin denak nafarren etsaiak.

**ALI:** Ai, ai, ai, ai.

**MOZKOR:** Hortakotz, frankoak bezala, hik ere merezi duk zanpaldi on bat.

**ALI:** Ai, ai... bakea neri. (*Pusatzzen du*)

**MOZKOR:** Bueno, bakea izanen duk, baina beharko dituk bost txikito, ordaindu nik ez hi zanpatzeagatik.

**ALI:** Bai, eta hamar ere, hi alkohol edale zikina.

**MOZKOR:** Eta, hi, musulman ur edale tripustela! Gure Jaungoikoak maite dik... eta behar ere... Meza eta guziak ardoarekin egitea nahi dik. Ez dik gure Jaungoikoak, gizonari eskatzen, zuen Alak bezala, bizi dadin ur hutsa, koka-kola, tea, eta holako zikinkeriak edanez...!

**ALI:** Ur edalea gizon sana duk, arno edalea baino.

**MOZKOR:** Zergatik beraz eta norentzat gure Jaungoikoak egin ote dik Nafarroako arno beroa, Astigarragako sagardoa eta Tres Reyes-ko koñaka fina.

**ALI:** Begira-zak, idia... Uztarran azkarra duk... zergatik? Ez duelakotz ardorik edaten.

**MOZKOR:** Ba, baina idia baino azkarrago dituk traktoreak, kamionak eta airetako hegazkiñak! Zergatik! Alkola edo gasolina edaten dutelakotz.

**ALI:** Guk, Zaragozan, badiagu mahometano apez bat, egunean hiruetan mezkita dorrearen gainetik, otoitzera deitzen gaitik. Haren boza, hiriko jende guziek entzuten ditek, batere alta-

bozarik gabe, horra, alkola ez edateak, zer indarra ematen duen gizonen bozari.

**MOZKOR:** Ba, eta guk hemen Iruñan, badiagu fraile ermita bat San Kristobal mendi gainean. Handik egunean hiruetan pixa eginez bustitzen dizkik Iruñako teilatu guziak. Horra alkola edateak zer indarra ematen dion gizonari.

**ALI:** Gezurra duk hori.

**MOZKOR:** Gezurra! Berehala apostua egiten diat, hik eta nik, nork pixa urrunago egin!

**ALI:** Berehala! Mila duro!

**MOZKOR:** To!... Mila duro!

**ALI:** Goazen komunetara!

**MOZKOR:** Ez, komunetan ez! Hemen berean! Pixa egin dezagun hemen-go populuaren gainean.

**ALI:** Populuaren gainean! Badaukak burutik!

**MOZKOR:** Ez hadila kexa, populuak badik holako baten aguantatzeko ohitura.

**ALI:** Bueno, lotu gaiten beraz apostuari. Hi hortik eta ni hemendik.

**ALGUAZIL:** (*Agertuz*) Hep, hep, hep... Zer ari zarete hola lotsagabe zikiñak. (*Matrakaz jotzen ditu*)

**MOZKOR:** Ai, ai, ai, jo-aitzik hola gure etsai frankoak, eta ez gu.

**ALGUAZIL:** Ale, fuera hemendik pizti basak zuek. Ez duzue zuek salbatuko, gure Nafarroa frankoen mendetik... Ez eta zuen iduri-koek.

**MOZKOR:** Ez eta hik ere. (*Musikarekin ateratzen dira «ai, ai, ai, ai»-ka algua-zilak matrakatzen dituela*)

## V

(*Mustafa bere soldadoekin, musikan urratsean ezzenara ateratzen dira*)

**MUSTAFA:** Soldado lagunak, badakizue nola frankoak heldu diren gu atakzera, Nafarroagandik... Nafarroako Aritza erregeari mezulari bat igorri diot. Antolamendu bat proposatu diot. Nafarroa eta guk eskua emanaz, oldar gaiten frankoari. Huna nun dugun itzuli berria nik Aritzari igorri mezularia. Mezulari, mintza zaite, esazu zer tratu egin duzun Aritza-rekin.



**MEZULARI:** Aritza erregeari hitza eman diot, eta berak onartu du haren gomendio emanen dugula Aixa, gure Mustafaren alaba bakarra, bataia dezala eta har emaztetzat. Hola ez bakarrik hitzez, baina odolez ere, josiak izanen baitira Zaragoza eta Nafarroa.

**MUSTAFA:** Zer zaizue, soldado lagunak?... Ongi ala gaizki zaizue gure tratu?

**SOLDADOAK:** (*Arma altxatuz*) Ongi, Mustafa!...

**MUSTAFA:** Hola denaz geroz, hurbil zaite huna, Aixa nere alaba, eman zaite belauniko. (*Obeditzen du... ilun dago bi besoak gurutzaturik*) Aixa, Alaren izenean har-zazu zure aitaren bendizioa. Ez zara gehiago nere mendeko izanen, baina nafar errege Aritzaren mendeko. Badakit sakrifizio handi bat eskatzen dautzudala, baina badakit sakrifizio hori gogotik onartzen duzula. Honi esker baigaituzu salbatzen Zaragozako populu guzia. Izan zaite Aixa, guri bezanbat nafar populuari atxikia... neri bezanbat, zure nausi berri Aritza erregeari. Alak lagun zaitzala nafar erregina on bat egiten.

**MUEZIN:** (*Letania alegre batzuen moduan kantatzen du eta erantzuna ematen diote*) Ala, zuk egin duzu eguzkia, zuk egin duzu ihintza, gure alaba hunek biziko den leku guzietan, zabal dezala ihintzaren freskoa eta eguzkiaren beroa.

**DENEK:** Intx Ala gaur eta bihar, atzo bezala!

**MUEZIN:** Ala, itsasoan beldurgarri izaten baita galerna eta salbagarri ur paketsua, hala izan zaitela zu ere, Aixa, beldurgarri franko-entzat eta paketsu zure senar eta nafar jendearentzat.

**DENEK:** Intx Ala gaur eta bihar, atzo bezala!

**MUEZIN:** Mahats ondo batek, hainitz mulko ematen dituen bezala, zure ondorioa izan dadiela mahatsa bezain ugaria.

**DENEK:** Intx Ala, gaur eta bihar, atzo bezala!

**MUEZIN:** Eta orain, Aixa goazen bakoitza bere bidetik eta denok Alak nahi duenetik. (*Aitak besarkatzen du bere alaba, musulman moduan. Denak ateratzen dira musikarekin, Aixak malkoak xukatzen dituela*)

## VI

(Ezzena hontan kantu hau: «Aita saldu nauzu idi bat bezala»)

Aita saldu nauzu  
Idi bat bezala  
Eta abandonatu ez  
Baninduzu bezala ez  
Baninduzu bezala.

Aita nere  
Lotsarik gabea  
Adio triste bat  
Izan da erentzi zurea  
Erentzi zurea.

Aita nereak  
Utzi nauen bezala  
Ilunpean bizi behar  
Etxetikan urrundik  
Etxetikan urrundik.

## VII

(*Musikarekin sartzan dira Aritza eta bere gudariak*)

**ARITZA:** Gudari, lagunak, badakizue zer antolamendu egin dugun Mustafarekin gaur, bere alaba Aixa, gure konbentu batean da, bataiatzeari buruz preparatzen ari.

**OTXOA:** Azken berrien arabera, frankoak jabetu dira Baigorri eta Donibane Garaziz, ordu hontan Orrian gaindi Iruñara hurbiltzen ari dira.

**ARITZA:** Sartzen diren leku guzietan, jabetzen dira kabalez eta uzta guziez. Ez dute ez emazte ez haurren axolarik. Hil, erre, gorputz bortxaketak, horiek dira horien jokabideak.

**OTXOA:** Badakigu, beraz, bihar zer gertatuko den gure Iruña hontan, hortakotz orain berean emanen dugu manua, jende guziak ihes egin dezala hiritik, duenak duenarekin... Denak joan daitzela gordetzera mendi zokoetara.

**ARITZA:** Eta guk gudariak gauza bera egin dezagun... Ez gira on buruz buru jokatzeko frankoaren armada ikaragarriarekin.





**OTXOA:** Gogor joka gaiten, pentsatuz, gure emazte eta haurreri, gure ontasanari eta gure geroari.

**ARITZA:** Hitz batez pentsa dezagun gure Nafarroari... Gurea gure nahi dugu.

**OTXOA:** Gudari lagunak, ados zaudete, aipatu moduan oldartzeko frankoen armadari?

**DENEK:** *(Arma altxatuz)* Bai.

**ARITZA:** Nere aldetik ematen dautzuedan agintza hauxe da:

Aurrera egiten badut, jarraiki neri.

Atzera egiten badut, hil nazazue.

Hiltzen banaute, bedeika nazazue.

*(Musikarekin ateratzen dira)*

## VIII

*(Bide luze batean gara, Iruña sutan. Entzuten dira hil kanpaiak. Bide hortan iragaiten dira herrestan, abal bezala elgar sustengatuz, emazte, haur, zahar, kolpatu, hil bat airetan eta holako)*

## IX

*(Musikarekin sartzen dira Rolando eta bere gudariak)*

**ROLANDO:** Oton hemen montatuko duk guardia, hemendik iragaiten dituk. Iruña huntatik eskapo joaten diren gizon guziak arrastatuko dituzue eta hemen estekaturik atxikiko. Sarri-xago berriz itzuliko naiz honara. Zuek arrastatu gizonak eramanez ditiagu Plaza Kastillora eta han urkatuko, hango arboletarik zintzilik.

**OTON:** Ondo komandan Rolando.

**ROLANDO:** *(Ateratuz)* Gero arte eta egon erne! *(Apuz batez ez da inor agertzen... Gero ikus daitezke iragaiten Ali eta Mozkor. Mozkorrek zaku bat dakar bizkarrean)*

**OTON:** Hep, geldi hemen zuek biak! Zer duzue zaku hortan?

**MOZKOR:** *(Irri)* Ez izan beldur, ez da ez bonba bat, gatu zahar bat hila daramagu larrutzera, gero saltsaturik jateko.

**OTON:** *(Haserre)* Irri gutxi nerekin, eman lurrean etzanik ahozbera.

**MOZKOR:** Egia, diodala! Gatu bat dugula zaku huntan! Gatu bat urriza, biok atxemana, ederki kostarik.

**OTON:** Aski zuen zozokeriekin. *(Bere soldaduei keinu egiten die. Mozkor eta Ali lurrera botatzen dituzte, aboz behera, eskuak bizkar gainean lotzen diozkatela)*

**MOZKOR:** Bizitzeko jan behar eta jateko bizia arriskatu behar hau komedia!

**OTON:** Ixilik!

**MOZKOR:** Gatu hori, guk ez badezakegu jan emazue bederen bertze norbaiti! Horren usaina hemendik kentzeko ez balitz ere.

**ALI:** Protesta egiten dut. Gu herritar jator batzu besterik ez gira.

**OTON:** Egin protesta, zuen urkatzea nere gain baita.

**ALI ETA MOZKOR:** *(Ikaratuz)* Zer!... Zer diozu...?

**OTON:** Huna alguazila, hemendik hasiko da bere bandoa botatzen... aski duzue zer dioen entzutea.

**ALGUAZIL:** *(Atabala jo-ta bandoa botatzen du)* Rolando jaun komandantearen partez Iruñako jende guzia gonbidatua gelditzen da berehala biltzera Plaza Kastillora. Hor urkatuak izanen dira denen aurrean, hemendik ihesi joaten atzemanak izan diren gizon batzu, populu guziak bere begiz ikus dezala zer kastigu daukaten, frankoeri oldartzen diren guziek...

**ALI:** Ez, ez daiteke holakorik, ez dugu guk ezer egin... Ni aita familiakoa naiz Intx Ala.

**MOZKOR:** *(Alguazilari)* Aizak, hik bederen egin-zak zerbait gure alde!

**ALGUAZIL:** Nik agindua egiten dut. Besterik ez. *(Izkatatzen da bandoa betez)*

**ROLANDO:** *(Agertuz)* Zenbat dira... Bat, bi, lotu elgarri eta eramanez Plaza Kastillora. *(Badoa)*

**ESTEKATUAK:** *(Biak batean)* Ai, ai, ai, ai, ai, ai, ai!

**OTON:** *(Orroaz)* Leporaino asean naiz zuen oihuez, urkatzeko badira bi modu: Laster, eta luzara hiltzekoa. Oihuka ariko dena, luzara hiltzeko modura urkatuko dutela abisatzen dut... eta orain aurrera... goazen Plaza Kastillora. *(Bat batean entzuten dira irrintzi eta oihu animala batzu. Gora Nafarroa eta errege Aritza. Fuera frankoak. Gudari multzo batek jauzi egiten du taularen gainera. Franko soldadu batzu hiltzen dituzte besteak ibesi doaz... estekatuak libratzen dituzte)*

**ESTEKATUAK:** *(Oihuka)* Gora Nafarroa, gora errege Aritza! *(Musikarekin ateratzen dira, arrastaka eramaten dituzte bildakoen gorputzak)*



## X

*(Musikarekin sartzen dira Aritza zenbait gudariek, Obispo, Aixa, nekatz eta emazte batzuekin)*

**OBISPO:** Aritza jaun erregea, zure nahiari jarraikiz, Aixa printzesari, esplikatu diogu, kristau erlijioa. Orain prest gira honen bataiatzeko, ez guk nahi dugulako baizik eta berak eskatzen duelakotz.

**ARITZA:** Aixa printzesa, zuk eta nik, elgarren berri badakigu. Ez nuke inondik ere nahi zu kristau bihurtzea, politikak hortara behartzen zaituelako, baizik zure barne barnetik hola nahi duzulakotz.

**AIXA:** Zin egiten dut, Aritza jauna, bataioa eskatzen dudala bakarrik fedezko arrazoinagatik eta ez beste edozergatik.

**ARITZA:** Esperantza dut Aixa, bataio horri emanen diogula ondotik bertze sakramenturik ere. Ez dakit bizirik aterako naizen gerla huntatik, baina nere atsegin handiena liteke zure buru gainean pausatzea nafar erreginen korona.

**AIXA:** Baitakit, nor den nafarren errege, gogo onez dut hartuko haren eskutik eskeintzen dautaten kargua.

**OBISPO:** Hola denaz geroz, egin dezagun berehala bataioa... Aixa eman zaitela belauniko... Uko egiten diozu demonioari eta hark sortutako erlijione makur guzietan.

**AIXA:** Bai uko egiten dut.

**OBISPO:** Sinesten duzu gure erlijioa dela bakarrik egiazkoa?

**AIXA:** Bai, sinesten dut.

**OBISPO:** Nahi duzu katoliko bilakatu bataioaren bidez?

**AIXA:** Bai nahi dut.

**OBISPO:** Hola denaz geroz, Aixa bataiatzen zaitut, aitaren, semearen eta izpiritu sailduaren izenean. *(Gurutze batekin, gurutze seinale handi bat egiten dio)*

**ARITZA:** Eta orain, trinka eta kanta dezagun girixtino berri honen ohoretan. *(Gaur eguneko edari batzuek edanez, kantatzen dute. Ondotik denak ateratzen dira, musikarekin)*

## XI

*(Musikarekin sartzen dira Mustafa eta bere soldadoak, haren ondotik, sartzen dira Rolando eta bere soldadoak, preparatzen dira bataila egiteko, pastoraletan bezala)*

**ROLANDO:** Mustafa, azken eskaintza bat, Zaragoza zuen hiri hau, librazak guri... zuen armada ihesi joaten utziko diagu, edo bestela, denak erre eta suntsituko ditiagu.

**MUSTAFA:** Nere soldadoak, zueri mintzo nauk... Zer diozue Rolandoren eskaintzaz? *(Soldadoek protestaz lurra zangoz, zangoz, zanpakatzen dute)* Horra gure erantzuna.

**ROLANDO:** Hola denaz geroz, hor izanen zarete denak gaur berean tripak idekiak, eguzkitan legortzen.

**MUSTAFA:** Gu legortzen eta zuek usteltzen. Ez baitzarete on usteldurako baizik.

**ROLANDO:** Aurrera kristauak! Fuera Ala!

**MUSTAFA:** Puska ditzagun horiek, Ala gurekin! *(Bataila hasten da... Lehenik musulmanak nagusitzen dira... ondotik kristauak... Musulmanek bataila abantzu galduta dutelarik, nafar gudariek, Aritza buru dela sartzen dira irrintzi batzuek botatuz... Rolando ibesi doa, bere soldado multzo bat lurrean bila uzten duela)*

**ARITZA:** Uste dut ordu onean etorri garela.

**MUSTAFA:** *(Eskua emanaz)* Nere goresmenak Aritza, eta milesker. Gauden hola-hola eskuz esku. *(Pastoralen modura bilak ateratzen dituzte. Berak musikarekin ateratzen dira)*

## XII

*(Arkaitz handi baten itxura ematen da taula gainean... musikarekin sartzen dira Rolando handizki kolpatua... bere bi soldadoekin)*

**ROLANDO:** Utz nezazue hemen eta zoazte berehala Carlo Magnori esatera zer gertatzen den leku hauetan eta datorrela lehenbailehen. *(Biek uzten dute eta lekua husten. Bera mintzo delarik, urrundik eta tarteka entzuten dira irrintzi batzuek, zaldi orro, karrosa eta arkaitz amilkada batzuen arrabotsa)* Orria... Andre Maria eguna! Zazpi ehun eta hirurogeita hemezortzia... Egund hau ba izanen dela oroitzeko eguna. Nafarrek Carlo



Magno zafratu... Nork usteko zuen Nafarroa ttipiak errauts zezakeela, Europa guzia ikaran daukan gure armada! Nere soldado guziak, edo hilak edo ihesi joanak leku madarikatu hontatik. Ni hemen, nik hemen hil behar! Nere ezpata sonatua, Durandal nere ezpata, nere biziko laguna, deusetako ez on... Nere besoak ez gehiago aski indarririk horren altxatzeko ere. *(Norbait nabaitzen da)* Nor da hor! Nor dabila nere ondotik? *(Agertzen dira Mozkor eta Ali, zaku bana bizkarrean)*

**MOZKOR:** To... Rolando! Zerri basa! Nun dituk Iruñan azaldutako indar harroputzak.

**ROLANDO:** Orduan nagusi gintukan... Orain zuek zarete nagusi, hil nazazue.

**MOZKOR:** Hi hil... Ez gaituk inor hiltzera etorriak huna, baina jan eta edatera, begira-zak... Ogia, gasna, nafar ardoa... Hauek denak zuen soldado hilen zakueta hartu ditiagu, berek guri lapurtuak. *(Biak hasten dira jaten eta edaten)*

**ALI:** *(Rolandori)* Eta jakin-zak ez dukala izanen trago bat ere, ez bokado bat gureganik.

**ROLANDO:** Ez diat nahi ere ezer, hire musulman esku zikinetatik.

**ALI:** Eskatzen dukana ez duk ukanen, baina eskatzen ez dukana ukan dezakek nere esku zikinatarik. *(Rolando adarra barturik, hasten da tut, tut eta tut jotzen)*

**MOZKOR:** Zer pasatzen zaik, to burutik, holako turutetan aritzeko?

**ROLANDO:** Ikusiko duzue nola nere soldadoak etorriko diren, nere turuta entzun-eta, eskualde guzietatik, zuek eta zuen idurikoak suntsituko baitzaituzte.

**MOZKOR:** Esan-zak hi, Don Quijote, ez duka hire turutat, norbait deitzen ahal, hire errota haizatu horren erreparatzeko. *(Rolando aurrera ari da turuta jotzen)*

**ALI:** *(Hurbiltzen zaio, turuta kentzen dio, eta lepoa tinkatzen diola)* Ekar huna adar txar hori... Burua hausten didak hire adar hots horrekin.

**ROLANDO:** Ai, ai, ai, ai!

**ALI:** Bazekiat gero nik ere, gizonak urkatzen laburki edo luzeki... *(Uzten du)*

**MOZKOR:** Bele zahar batzu hasiak dituk huna biltzen... badakik... gorputz zaurituari, belek lehenik begiak zizkiotek errotik ateratzen eta hesteak ipurtzulotik.

**ROLANDO:** Ha, bihotza joaki zaitak! Nabaitzen diat hiltzen ari naizela...

Hil aintzin nahi nikek, zuek bieki neri zerbait hitzemaitea.

**MOZKOR:** Zer nahi duk, guganik? Mintza hadi.

**ROLANDO:** Nahi nikek, ni hil eta, nere emaztegaia, bi puska egin-eta lurpean sartzen bazinute!

**MOZKOR:** Bi puska? Hire emaztegaia?

**ROLANDO:** Ba, nere emaztegaia duk Durandal, nere ezpata sonatua nere bizi guziko laguna.

**MOZKOR:** To, bertzerik nian itxaropen, holako emaztegaiekin ez ditiat aise hankak berotuko.

**ALI:** Nik, hire ezpata puskatu baino nahiago diat erregalo eman norbaiti. Baliekek horrek gure zikiro erretzeko gerrena on baten gaia.

**MOZKOR:** Hortaraino joan gabe, hemen hurbil diagu Luzaideko asto perra egilea. Segur nauk, horrek prezio on bat eman lezakeela. *(Rolando desgustatua balitz bezala, azken orroka bat eginez hiltzen da)*

**ALI:** Honek azken putza bota dik!

**MOZKOR:** Goazen, goazen hemendik. Utz dezagun lantegia libro bele eta zakur basatieri. *(Musikarekin biak ateratzen dira)*

### XIII

*(Musikarekin sartzen da Mustafa bere soldado eta emazte zenbaitekin, ondolik Aritza, bere gudari eta emazte zenbaitekin. Gero Aixa eta Obispo)*

**OBISPO:** Neretzat atsegin eta ohore bat da, zuek, gaur hemen ezkontzea. Hemen ez dira bakarrik ezkontzen bi bihotz bainan bi populu eta bi erlijione. Bi diren horiek guziek, bat egin dezatela, denen arteko bake eta ondo bizitzearen alde. Bertzerik gabe egin dezagun ezkontza. *(Biak belaukikatu direla bere aintzinean)* Zuk errege Aritza, kristau moduan eta betikotz hartzen duzu ezkon-laguntzat, zure ondoan den Aixa printzesa?

**ARITZA:** Bai, jauna!

**OBISPO:** Eta zuk Aixa printzesa, kristau moduan eta betikotz senartzat hartzen duzu, zure ondoan den Aritza errege jauna!

**AIXA:** Bai jauna!



**OBISPO:** Emazkitzue eskuak elgarri... Jainkoak benedikata dezala zuen ezkontza eta haren izenean benedikatzten zaituztet. (*Guru-tze handi bat egina*) Aitarene, semearene, izpirituarene izeneane. (*Ezkonberriak xutitzen dira...*)

**FATMA:** (*Mahometano neskatx bat burbiltzen zaiio Aixari kaja bat eskuetan*) Kaja hau eskaintzen dautzute Aixa zure gazte lagunek. (*Kaja hartako eraztuna ematen diote Aixari... Gero Yo-Yo kantatuz ematen du tripa dantzatza bat. Horren ondotik, Aritzari, gudari lagunek ezpata eskaintzen diote*)

**GUDARI:** Hau, Aritza erregea, hire gudari lagunene partez. (*Ondotik, aurreku bat dantzatzene dute, eta denak edan ondoan ateratzene dira musikarekin*)

Aski baitugu esanik  
Huntan gara ixilduko  
Deneri agur esker mila  
Eta bertze aldi bat artio.

(*Bukatzeke, denek batean kantu bat eman dezakete edo bestela azken agurra eginik ateratzene dira musikarekin*)

OIHALA

## XIV

### AZKEN PREDIKUA

Jende onak, orain badakizue  
Gure Orrian zer zen gertatu  
Ez baditugu xuxen denak esan  
Eskatzen dautzuegu barkamendu.

Hainitz modu segur bada  
Historia bera kontatzeko  
Gure hau pentsatu zuena  
Ongi bazkaldurik zen izango.

Ongi ikasiak baitzarete  
Egin gure alde propaganda  
Lehen Orrian bezala  
Gaur ere bestarako behar baita.

Den deneri esaiozute  
Orriara direla gonbida  
Berdin dugula onartuko  
Rolando baita Carlo Magno.